

KARKARA

GUKA



GURPIL GAINEAN

**MUNDUA
ESKUETAN**

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



ARDORA



Eusko Gudari, 4
 © 943-09 28 17 · 623 47 57 52
 ardoraarraintegia@yahoo.com
 ORIO

arkaitz taberna
 ...orio...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrarekin
 giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

azkue
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86

azkue

Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK



iglesiascerrajeros@yahoo.es
 www.iglesiascerrajeros.com
 Erribera kalea, 14 · ORIO
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

fontana
 iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak



- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoien instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28

Joseba
 AROZTEGIA · CARPINTERIA



687 683 427
 josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- ARROZTEGIA OROKORREAN

KAİOA



kaioa_denda
 www.kaioa.es



KARKARA 449

2023-APRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:

UNAI ILLARRAMENDI

ETA KAREN LARRAÑAGA



Aurkibidea

- | | | |
|----|--|--|
| 5 | Korapiloa Aiora Larrañaga
Solaberrieta
<i>Errealitate desitxuratua</i> | |
| 6 | Hitz tantak Andrea Zipitria eta
Aiora Larrañaga Solaberrieta
<i>Warda Mallal: "Bizitza osoa daramat
dantzaren munduan murgilduta"</i> | |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
Aprea
<i>Aiako Mendi Lasterketa</i> | <i>Bizitza gurpil gainean, Amerikan
barrena</i> |
| 11 | Gutunak | 23 Moila bazterretik Elixabete
Huegun
<i>Asmatu ipuin bat</i> |
| 12 | Akuilua hartuta Ainara Alberdi
Lertxundi
<i>Gazteak eta drogak</i> | 24 Guka, erreportajea Onintza Lete
Arrieta
<i>Familia transnazionalak</i> |
| 13 | Puntua jarrita Maider Sukia | 32 Elkarriketa Mireia Galarza
Bastida
<i>Eñaut Marti: "Musika nire bizitza da,
ezingo nuke bizi hori gabe"</i> |
| 14 | Euskara Amaia Zaldúa
<i>Raquel Matellanes: "Hemen oso
garrantzitsua da euskara"</i> | 36 Guka gara! |
| 15 | Herrian galdezka
<i>Zein da Aste Santuetarako planik
onena zuretzat?</i> | 38 Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Lehen urratsa eman zuten emakume
aitzindariak</i> |
| 16 | Erreportajea Aiora Larrañaga
Solaberrieta | 42 Elkarriketa Andrea Zipitria
<i>Ainhoa Usandizaga: "Kirol batzuetan
handia da emakumeen eta gizonen
arteko arrakala"</i> |
| | | 45 Ikasleak idazle Orioko Herri
Ikastola |
| | | 46 Plazan bazan |

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea

Koop. Elk.

Soreasu 1. 20730

AZPEITIA

943-83 15 27

karkara@karkara.eus

www.karkara.eus

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga

Solaberrieta

Erredaktore taldea

Andrea Zipitria

Onintza Lete Arrieta

Mireia Galarza Bastida

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitatea

Leire Martija

Zenbaki honetako

kolaboratzaileak

Arnaitz Rubio Aprea

Ainara Alberdi Lertxundi

Maider Sukia

Amaia Zaldúa

Elixabete Huegun

Iñaki Iturain

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)

Manex Dorronsoro (Orio)

Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-346/90

ISSN: 1132-1105

Tirada: 4.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIKO
UDALA

Babesleak:



DANOBATGROUP

DOMUSA
T E K N I K



%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantza kalea, 10 943-24 89 46

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



Katu
Horia
albaitaritza klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia: **668891129**



GARMENDIA
Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 - 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 - ORIO
info@egarmendia.com

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



BODEGA
KATXIÑA

Ortzaika, 20 - ORIO
943-58 01 66 - 606 36 76 93
www.bodegakatxiña.com · f i

Kepa Loidi
harategi-urdaitegia

24 orduz harategi banagailua

Pelotari kalea, 1 - Orío · 943-83 25 65
www.kepaloidi.com - info@kepaloidi.com

Xsarkitektura
herrikobarra, 11 behea · ZARAUTZ · 943-13 43 58

www.xsarkitektura.com


eraikuntza zerbitzuak
eraikinen mantenua
errehabilitazioak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
obrak



Kolon Txiki
edartegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

JARRI
HEMEN
ZURE
IRAGARKIA

LASTER
DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodien garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
24 orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Errealitate desitxuratua



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Zenbaki honetako azalak zein barruko argazki eta istorioek liluratuta utziko dituzte irakurle asko: Uyuniko gatzeko desertua, Brasilgo hondartzak, Peru eta Boliviako txokoak eta Patagoniako glaziarak. Izan ere, jende askoren ametsetakoa da, zalantzarik gabe, Karen Larrañaga eta Unai Illarramendi Alai eta Oihan semeekin batera egiten ari diren bidaia. Zeini ez zaio burutik pasatu, estresak jota dagoen momenturen batean, egunerokoa geldialdia egin eta familiarekin abentura batean murgiltzea? Familiak Instagram sare sozialean duen Mundugura kontuan sartu nintzenean, txundituta utzi ninduten bertan bildu dituzten irudi zoragarriak. Horixe esan nien beraiekin telefonoz hitz egin nuenean ere, eta Larrañagaren erantzun argiak atentzioa eman zidan. "Sare sozialetan oso polita dirudi guztiak, baina txoko horiek guztiak ezagutu ahal izateko milaka kilometro egin behar izan ditugu autokarabanarekin, eta hori, noski, ez da horren polita". Horrek sare sozialen inguruan pentsarazi zidan zenbait egunez, badugulako gure bizimodua sareetan ikusten dugunarekin konparatzeko joera. Oriotarren bidaiako argazkiak ikusten ditugunean, esaterako, inor ez gara ohartzen zeharkatu dituzten 28.000 kilometroez, edo hori egin ahal izateko gainontzekoak bezalaxe eguneroko errutinan sartuta, dirua aurrezten, pasatu zituzten zazpi urteez.

Kasualitatez, sare sozialen gaia aipatu zidan Andoni Mutiloa zuzendari eta aktoreak ere, martxoaren 18an Orion eskaini zuen *Sex Sua* antzezlanaz elkarrizketa egin nionean. Kasu horretan, itxura fisikoari sare sozialetan ematen zaion garrantzia jarri zuen berak arreta. "Gizartean oso estandarizatuta dauden kanon estetikoek ikaragarritzko garrantzia hartzen dute sare sozialetan. Besteentzat erakargarria eta desiragarria izatea nahi dugu uneoro", azaldu zidan. Hortxe beste erroka, filtroz betetako irudiei kasurik egin ez eta nork bere burua eder sentitzea, pentsatu nuen.

Zer gertatzen da, ordea, testuingurutik aterata dagoen perfekzio desitxuratu hori lortu ezin denean? Frustrazioa sortzen die askori. Ez naiz ni psikologoa eta ez dut gomendiorik emango egoera horri aurre egiteko, baina gero eta argiago daukat daukaguna aintzat hartzean dagoela benetako zoriontasunaren gakoa. ■

**"USTE DUT
DAUKAGUNA AINTZAT
HARTZEAN DAGOELA
BENETAKO
ZORIONTASUNAREN
GAKOA"**

BERAZADI BERRI
ERRETEGIA



*Berazadi Berri Erretegian,
zerbitzaria behar da*

Interesatuak idatzi whatsapp zenbakira:
600 22 00 49

Warda Mallal: "Bizitza osoa daramat dantzaren munduan murgilduta"

TESTUA: ANDREA ZIPITRIA - AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

ARGAZKIA: ANDREA ZIPITRIA

Mila dantzari inguru bildu zituen martxoaren 19an Dance Contest txapelketak. Warda Mallal dantzaria da antolatzailea, eta dantza urbanoaren mundua izan du hizpide.

Zer moduz joan zen txapelketa?

Egia esan, oso ondo. Urtero bezala, urduri hasi genuen eguna, baina bukatu zenean, egunaren errepasoa egin eta primeran atera zela konturatu ginen.

Lan handia eskatuko du tamaina horretako txapelketa antolatzeak, ezta?

Bai, handia. Askotan iruditzen zait jendea ez dela konturatzen txapelketak dakarren prestaketa lanaz. Hilabeteak pasatzen ditugu antolaketa lanetan, baina azken astean estres handia izaten dugu.

Zer nabarmenduko zenuke aurtengo edizioaz?

Oso maila altuko txapelketa izan da. Lehia estua egon da taldeen artean, dantza eskola oso onek parte hartu dutelako. Epaimahaiarentzat ere zaila izan da irabazleak aukeratzea.

Zuk ere parte hartu al duzu?

Ez, uste dut txapelketetan parte hartzeko nire momentua pasatu dela. Nire adineko dantzariak txapelketetan parte hartzen zutenean, ni seme-alabak hezten ari nintzen, eta orain ez dut neure burua ikusten lehiatzen. Dena dela, asko gozatzen dut dantza eskolak ematen eta txapelketa antolatzen. Gaztetan, artean Marokon bizi nintzenean hasi nintzen irakasle. Handik gutxira Euskal Herrira etorri nintzen, eta hemen sabel-dantzako irakaslea izatea proposatu zidaten; hori izan zen nire lehen lana hemen. Hasieran Orion hasi nintzen eskolak ematen, baina pixkanaka ekialdeko dantzen irakaslea nintzela zabaldu zen, eta dantza eskola askotatik deika hasi zitzaizkidan.

Zuretzat zer da dantza?

Bizitza osoa daramat dantzaren munduan murgilduta, haurra nintzenetik. Urte hauetan

guztietan hainbat estilo jorratu ditut: sabel-dantza, dantza urbanoa, tribal fusion, popping dance, comercial dance, burlesque... Horretarako, etengabe ikasten dihardut nazioarte mailako irakasleekin; izan ere, masterrak antolatzen dira dantzariarentzat, estiloak perfektionatzeko. Dantza estilo desberdinak fusionatzea dut gustuko.

Denbora asko eskaintzen al diozu dantzari?

Orain lehen baino gutxiago entseatzen dut, seme-alabekin uztartu behar dudalako dantza, eta ez delako beti erraza izaten. Lehen Zarautzen nuen nire dantza eskola, baina lokala saldu egin dute, eta hamar urteren ondoren, itxi egin behar izan nuen. Orain, Zarautzen eta Azpeitian ematen ditut dantza eskolak, eta bitartean, etxeko salan entseatzen dut, alabarekin batera.

Zure alaba ere dantzaria al da?

Bai, Salmak urteak daramatza erakustaldiak ematen. Dance Contest txapelketan, esaterako, epaimahaiak irabazlea zein den erabakitzeko atsedena hartzen duenean, Salma igotzen da agertokira. Dantza munduan dabilen jendeak ezagutzen du, eta 8 urte dituen arren, askok jarraitzen dute bere ibilbidea. Aurtengo erakustaldian, esaterako, oso maila ona erakutsi zuen, arrakasta handia lortuz.

Gustatzen al zaizu alabak zure urratsak jarraitzea?

Bai, noski. Ez dut sekula behartu dantza egitera, baina barruan darama. Orioko bere lagun batekin binakako saioa egiten du, eta benetan ikusgarria da. Hain zuzen ere, apirilean, Zarauzko Munioan egingo den dantza galan K-Pop dantza erakustaldia emango dute. Pop korearra oso modan jarri da gazteen artean, eta funkya, hip hopa eta jazza uztartuz dantza egiten da. Bi seme ere baditut, baina haiek nahiago dute futbola.

Ez zara geldik egotekoa. Proiektu berririk ba al duzu buruan?

Orioko kiroldegian dantza latinoen txapelketa antolatzea gustatuko litzaidake. Espainian toki askotan antolatzen dituzte, baina hemen ez dago txapelketa garrantzitsurik. ■■■



Aiako Mendi Lasterketa

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

TESTUA: KARKARA

Martxoaren 4an jokatu zen Aiako XII. Mendi Lasterketa, eta eguraldia lagun, hitzordu politaz goatzeko aukera izan zuten parte hartzaileek.

Ordubete pasatxo behar izan zituen Alain Santamariak helmuga zeharkatzeko, eta 1:03:39 denbora eginda, orain arte Aiako Mendi Lasterketak gizonezko kategorian zuen marka hautsi zuen.

Emakumezkoen artean, berriz, Marina Gonzalez izan zen azkarrena (1:26:03).

Denborez harago, korrikalari askorentzat parte hartzea izaten da garrantzitsuena, eta mendiaz goatzeko aukera izan zuten mendi lasterketan parte hartu zuten 315 korrikalariak. Hurrengo hitzordua Orion izango da: maiatzaren 20an, izan ere, Talai Mendi Trail lasterketaren hirugarren edizioa jokatu da. ■■■







Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17



Ondo elikatuz bizi
Heziketa nutrizionala | Menuen planifikazioa
| Nutrizio klinikoa | Elikadura kirolean
| Elikadura bizitzako aro ezberdinetan

Eusko gudariak, 35 • ORIO (sarrera Arrantzale kaleatik) • 943-53 64 94 • 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com • www.libegarmendia.com



Lizaso Dekorazioa
Eusko Gudari, 48 • ORIO • 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



MARIO
ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behe • ORIO
943-13 47 29

MENDIZABAL AROZTEGIA
Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea • AIA-ORIO
943-83 11 75 • 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



Oreka
fisioterapia
Eusko Gudari, 54 • 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia • Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa • Osteopatia

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behe
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com



Oriko Herri Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 • 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com • ORIO



Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa




generoa
garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 • FAX-a: 943-13 01 44

Eskertza gutuna

AIAKO GURASO ELKARTEA

AIA

Aiako Lardizabal herri eskolako guraso elkarteak eskerrak eman nahi dizkie herriko taberna, denda eta gazte asanbladari, inauterietan eskaini ziguten laguntzagatik. Eskolako haurren jaialdiaekin eta arratsaldean izan ziren kalejira eta pintxo-potearekin, eguna borobiltzea lortu genuen. Guztion parte hartzeari esker izan zen hori.

Orain agur

ORAIN ORIOKO AUKERA

INDEPENDENTEA

ORIO

Gainean ditugu udal hauteskundeak, eta guri agur esatea tokatzen zaigu. 2011n jaio zen talde indartsuak eman du eman beharrekoa eta, hiru agintaldiren ondoren, gure ibilbidea bukatzeko momentu ona dela iruditu zaigu. Talde hau jaio bazen Orioko Udalak zeraman martxa aldatzeko izan zen. Jende asko ginen, herriko talde desberdinetan lanean jardun eta udalarekin deseroso geundenak. Batez ere, egiteko moduak ziren aldatu nahi genituenak, eta horretan saiatu gara hamabi urte hauetan.

Gogorra bezain polita izan da, gai asko eta oso desberdinak izan ditugu mahai gainean, baina guztietan jator eta zintzo jardun gara. Jarrera eraikitzailea izan dugu ardatz beti, eta gure

ekarpen guztiak oriotarren bizitza hobetzen laguntzeko izan dira.

Jaso ditugun botoak erantzukizun eta ardura handiz erabili ditugu, eta erabakigarriak izan dira askotan. Horregatik, lasai eta harro gaude egindako guztiarekin, gustura.

Bukatzeke, eskerrak eman nahi dizkizuegu guran konfiantza jarri duzuen guztioi, baita ere hau aurrera eramaten lagundu diguzuenoi, eta nola ez, gure zinegotziei –Jokin Izagirre, Miriam Uranga, Iñigo Arruti Txabola, Jose Angel Iparragirre Iparra–, zuei tokatu zaizuelako aurpegia ematea.

1955. urtean jaiotakoen bazkaria

JOSE IGNACIO EGURZA AGIRRE

AIA

1955ean jaiotako aiarrok kinta bazkaria egingo dugu apirilaren 22an, Altxerri jatetxean. Izena eman nahi dutenek 659 99 28 58 telefono zenbakira deitu dezakete edota Altxerrin bertan izena eman. Epe muga apirilaren 15a jarri dugu. Parte hartu nahi dutenek telefono zenbakia eta izen-abizenak 71kokinta@gmail.com helbide elektronikora bidali.

Logroñora irteera

ZAHARREN BABESLEKUA

ORIO

Apirilaren 25erako Logroñora irteera antolatu dugu, eta

txartelak salgai jarriko ditugu apirilaren 11n, asteartearekin, 16:30etik 18:30era, Zaharren Babeslekuan. Irteeraren prezioa 40 eurokoa izango da.

Irteera egunean autobusa 09:00etan aterako da Oriotik, eta 11:00etan helduko gara Logroñora; bazkalordura arte denbora librea izango dugu, eta bazkaria Maison Cid jatetxean egingo dugu. ■■■

JAIOBERRIAK

- **Lur Jauregi Mujika.** Orion, urtarrilaren 8an.
- **Yara Arregi Bautista.** Orion, otsailaren 8an.
- **Sultan Muhammad Akhtar.** Orion, otsailaren 15ean.
- **Ilargi Eguzkiza Del Hoyo.** Orion, otsailaren 21ean.
- **Athenea Mendez Noguera.** Orion, otsailaren 20ean.

HILDAKOAK

- **Teresa Sorondo Agirrezabalaga.** Orion, martxoaren 21ean. 75 urte.
- **Maria Dolores San Sebastian Aldaz.** Orion, martxoaren 22an. 72 urte.
- **Lupe Oliden Uranga.** Orion, martxoaren 22an. 96 urte.
- **Juanita Alberdi Etxeberria.** Orion, martxoaren 23an. 76 urte.
- **Juan Luis Zumeta Iruretagoiena.** Aian, martxoaren 25ean. 64 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio



Gazteak eta drogak

Droga kontsumoaren hasiera, normalean, nerabezeroarekin batera etortzen da. Nerabezeroak berez dituen gorabehera, zailtasun eta aldaketa guztien artean, drogen kontsumoaren kudeaketa ere gehitzen da, beraz. Eta nola jarri muga kontsumo horri, dena nahi bezain azkar lortzera eta eskura izatera ohituta dagoen gizarte honetan? Aspertzea ere aukera bat ez denean? Ez da erraza. Gaur egun, frustrazioa kudeatzea inoiz baino gehiago kostatzen zaigu. Gizartea oso azkar bizi da, eta guk emaitzak behar ditugu ahalik eta azkarren: aktibo jarraitu, ekoizten jarraitu; ez dago astirik gelditzeko, denbora hartzeko, norbere buruarekin egoteko... eta horrek guztiak irtenbide

azkar eta eraginkorrak bilatzera garamatza.

Kontsumoa arazoen, estresaren, tristuraren edo aspermenaren aurrean pilula magikoa izan daiteke. Substantzia kontsumitutako momentuan behintzat ahaztu daiteke gainean edo barruan daramaguna, eta aukera hau izateak berak, askotan, ez gaitu laguntzen horrek sor ditzakeen ondorioetan pentsatzen. Izan ere, momentuan azkar eragingo digun zerbait lortzea izaten da helburua.

**FAMILIAK ERE PISU
HANDIA DU NERABEEK
KONTSUMOAREKIN EDO
DROGEKIN DUTEN
HARREMANEAN**

Honi guztiari, nerabezeroan taldearen presioa ere gehitzen zaio, lagun taldeak hartzen duen garrantzia dela eta. Nola esan ezetz, lagun guztiek zerbait kontsumitu nahi dutenean eta norberak ez, taldetik baztertuta gelditu gabe?

Gaur egun alkohola, tabakoa eta zigarro elektronikoa dira normalizatuenak dauden drogak, eta baita nerabeen artean lehenengo kontsumitzen direnak ere. Bereziki, alkoholarekiko gazteek duten arrisku pertzepzioa nahiko baxua da orokorrean, gure kultura ere oso orokortua eta barneratua baitago.

Legez kanpoko drogen artean, berriz, marihuana da normalizatuen dagoena, eta baita nerabeek lehenengo probatu ohi dutena ere. Hala ere, alkoholarekin alderatuz,

HAUXE BAI JENEROA!



duten arrisku pertzepzioa handiago da, eta ez da alkohola bezainbeste orokortzen kontsumoa gazteen artean.

Familiak ere pisu handia du nerabeek kontsumoarekin edo drogekin duten harremanean. Familiaren heziketa estiloak, gazteak gurasoekin duen harreman motak, etxeko giroak, etxean drogen inguruan jaso duten ereduak edo ikusi dutenak... eragin zuzena du gazteek nerabezaroan eta etorkizunean drogarekiko izango duten jokamoldean.

Kontsumoa ahalik eta murriztena izateko edo horrek ekar ditzakeen kalteak ekiditeko, bizitzako egoera onei zein txarrei norbere buruari kalterik egin gabe aurre egiteko estrategiak eskuratzean legoke gakoa, norbere burua zaintzeko nahia

badago, noski. Ez balego, hortik hasi beharko ginateke lanean, horren arrazoa lantzen. Baina nahia balego, honako galderei egin beharko genieke aurre: zerk lagunduko digu egun txarra dugunean, sentsazio txarrari aurre egiten, marihuana kontsumitu beharrean, edo garagardo bat hartzera joan beharrean?

Egunerokotasunean zein egoera zailetan, kirola egiteak, gorputza mugitzeak, konfiantzazko norbaitekin hitz egiteak, meditazioak edo bestelako zaletasunen batean aritzeak lagun diezaguke egunerokotasuna jasangarriago bilakatzen, bizitza osasuntsu bat izaten eta gehiegizko kontsumoetan ez erortzen, bizitza erraza ez den momentuetan, bizitza disfrutatzea ere ahalbidetuz. ■■■

PUNTUA JARRITA

Bertsolaria: Maider Sukia.
Doinua: Gazteak Lizargatez.

1 Trikitixari hautsa kenduta zabilta

goguakin hartzea horixe da giltza. Nahiz eta adinean goazen gorantza berriz barruko arrak heldu digu antza.

2
Bi astero elkartzeko jartzen degu zita pereza eta lotsa alboan utzita. Garai zarrak goatuz auspoa irekita animatu zaitezte gurekin afaita.

3
Festetan kalejira degu aitzakia, batzuek panderoa besteok trikia. Kuadrilla politen bat osatzeko nahia animatzen denantzat badago tokia.

Hurrengo bertsolaria:

Ainhoa Mateos.

Puntua:

Asko aldatu al da neskentzat kirola? ■■■



Raquel Matellanes: "Hemen oso garrantzitsua da euskara"

TESTUA: AMAIA ZALDUA (AEK)

Raquel Matellanes Santamarta Oviedokoa (Asturias, Espainia) da, baina Orion bizi da. 2021eko urrian etorri zen eta, irakaslea denez, C1 mailaren ziurtagiria eskatzen diote lan egin ahal izateko. Hortaz, ailegatu eta jarraian, poliki-poliki, hasi zen euskara ikasten.

Duela urte eta erdira arte ez zinen Euskal Herrian inoiz izan. Zein da zure egungo egoera?

Hasieran, *bat, bi eta hiru* bakarrik nekien esaten. Egun, etxean ere saiatzen gara euskaraz egiten, nahiz eta zaila izan dena euskaraz egitea, baina zertxobait egiten dugu. Bestalde, B1 mailaren ziurtagiria lortu berri dut, pasatu den urrian, eta B2 maila oso zaila ari zait egiten, baina ari naiz. Dezente ulertzen dut dagoeneko, eta hori niretzat lorpen handia da, sekulako poza! Orain, euskara gustatzen zait, ze hasieran, hesi handia zen, eta orain argia ikusten dut.

Noiz entzun zenuen euskara edo euskarari buruzko zerbait lehenengo aldiz?

Bikotekideari bakarrik entzun nion, eta txinera iruditu zitzaidan. Ez nuen ezer ulertzen, zeren eta, gainera, jendeak oso azkar hitz egiten du, eta oso desberdina da, batetik, gaztelaniarekin alderatuz gero, eta, bestetik, batua edo kalekoa. Egia da Asturiasen ere hizkuntzak eta hizkerak nahasten direla, baina hau zailagoa da.



Nola jaso zaituzte bertakoek?

Jendea, normalean, oso jatorra da. Ni ere iparraldekoa naiz, baina nabaritu dut aldea handik hona. Hemengo jendea itxiagoa da, hasiera batean, lehorragoa edo hotzagoa; alabaina, ezagutzen duzunean, betiko lagun bihurtzen da.

Oro har, jendeak, galduta nagoela ikusiz gero, lagundu egiten dit eta ez dut inoiz arazorik izan. Ingurukoek badakite euskara ikasten ari naizela eta mantsoago hitz egiten dute, behar izanez gero.

Eta gertatu izan zaizu kontrakoa? Gaztelaniaz egitea?

Erdi eta erdi. Ni oso lotsatia naiz eta asko kostatzen zait askatzea. Hortaz, batzuetan bi hizkuntzetan aritzen naiz; besteetan, txandaka...

Oso denbora gutxian oso maila altua lortu duzu. Zer gomendatuko zenioke ikasten ari den bati?

Ni hutsetik hasi nintzen, baina langabea naizenez, denbora libre asko daukat eta inbertsio

handia egiten ari naiz. Oso garrantzitsua da denbora honetan dena ematea; ni, adibidez, egunero, bost orduz aritzen naiz euskaltegian; barnetegietara ere joan izan naiz, eta duela gutxi eman dut izena Mintzalagun egitasmoan. Ikasteko, murgildu egin behar da. Berriak ere irakurtzen ditut, eta musika ere entzuten dut. *Irati* filma ikusi berri dut...

Zergatik eman duzu izena Mintzalagun egitasmoan?

Sozializatzeko aukera interesgarria da, etxetik kanpo euskaraz egiteko, jendea ezagutzeko, lotsa galtzeko... Polita da beste hizkuntza batean komunikatzea. Dena den, norberaren espazioetan ere euskaraz praktikatzea oso garrantzitsua da.

Nire asmoa bizitzan egiten ditudan gauzak mintzalagunarekin partekatzea da: errezetak trukatzeko, esaterako.

Zer gomendatuko zenioke iritsi berriari?

Presiorik gabe ikasteko, frustrazioa ekar baitezake, eta lotsa galtzeko.

Euskaraz dakitenei zer esango zenieke?

Oso lagungarriak izan daitezkeela eta Mintzalagun egitasmoan izena ematera animatzeko esango nieke.

Euskal herriko toki bat: Orio.

Kantu bat: Zetak taldearen *Zoriontasuna* abestia.

Gustuko euskal hitza: *Alaia*. ■■■


Zein da Aste Santuetarako planik onena zuretzat?



NAROA EIZAGIRRE

"Azken urteetan ostalaritzan lanean jardun naizenez, ez dut aukera gehiegi izan Aste Santuko oporraldian plan berezirik egiteko, baina ahal dena aprobetxatzen saiatzen naiz, eta beti ateratzen dira plan txikiak egun hauek disfrutatzeko.

Alde batetik, Zarauzko Garagardo Azokara joatea aukera ederra da. Bost egunetako festa izaten da, eta nahiz eta jende asko ibiltzen den bertan, giro bikaina sortzen da, eta beti egiten dugu bueltatxo bat. Aurten ere bai, noski. Bestetik, aurten lagun batzuen artean furgoneta hartu eta bidaia bat antolatzen ari gara, eta plan ezberdin hori egiteko gogoz nago. Aste Santuen sinbologia ospatzen ez dudan arren, oporrak beti hartzen dira ondo!"



ENERITZ ILLARRAMENDI

"Niretzat Aste Santurako planik onena da familian eguzkia eta tenperatura epela eskaintzen dituen lekuren batera joatea. Nire senarraren familia Cadizen [Andaluzia, Espainia] egoten da garai horretan, eta guk ohitura dugu Aste Santua bertan pasatzeko. Urte guztian zehar gure alabek aitaren aldeko aitona-amonekin egoteko aukerarik izaten ez dutenez, oporraldi hau aprobetxatzen dugu 11 egun inguru elkarrekin egoteko, eta primerakoa da. Aspaldiko ohitura da gure familian, uste dut alaba zaharrena jaio zenetik ez dugula hutsik egin. Saiatzen gara urteko oporren zati bat Aste Santurako gordetzen Cadizera bidaia egin ahal izateko".



XUA MANTEROLA

"Niretzat planik onena da guk egingo duguna: autokarabana hartu eta Jerteko Haranera [Extremadura, Espainia] joango gara familian Aste Santuetako bost egunak pasatzera. Inoiz ez ditut ikusi hango gereziondoak loretan, eta badakit zelaia eta zelaia daudela eta oso polita dela. Hango arroiletan ere ibiliko gara: mendi bueltak egingo ditugu, bizikletaz ere ibiliko gara... Pazko Astea, berriz, Orion igaroko dut, gurasoek lana egin behar dutelako. Gu aitona-amonekin ibiliko gara, baina gauza gehiago ere egingo ditugu: ludotekakoekin Aquariumera joango gara eta Mari Joserengana ere bai, eskulanak egitera. Lagunekin ere aterako naiz, eta haien txakurrak paseatzen uztea eskatuko diet".

bertako
igogailuak | ascensores

Benetako orotariko zerbitzua

100€-tik/hileko

Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzena

+2.000 bezerok gugan dute konfiantza

943 903 450 bertako.eus

Bizitza gurpil gainean, Amerikan barrena

2022ko maiatzaren 2an atera ziren Karen Larrañaga eta Unai Illarramendi Oriotik Montevideo aldera, Alai eta Oihan semeekin batera, helburu argiarekin: autokarabana hartuta Amerikan barrena bidaiatzeara. Hamar hilabete daramate atzerrian, eta jende asko ezagutu dute bidean, baita hainbat ezusteko bizi ere.

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

Argazkiak: **Unai Illarramendi eta Karen Larrañaga.**

Duela hamar hilabete abiatu zuten Karen Larrañagak eta Unai Illarramendik askoren ametsetako bidaia Alai eta Oihan semeekin batera: autokarabanan Hego Amerika zeharkatzen ari dira, eta aste gutxi barru Ertamerikara pasatzea da haien asmoa. Izan ere, ibilgailua matxuratu zaielako atsedean hartzen ari dira Kolonbian, apartamentu batean. "Polita bezain gogorra da autokarabanan horrenbeste herrialde ezagutzea", azpimarratu dute. 28.000 kilometro inguru egin dituzte, eta zortzi herrialde zeharkatu. "Ordu asko pasatu ditugu errepidean, eta, sentitzen genuen espazio pixka bat behar genuela, eremu txiki batean bizi izan garelako hamar hilabetez. Horregatik, autokarabana konpontzen dugun bitartean, apartamendu batean gaude", azaldu du Larrañagak. 2022ko maiatzaren 2an atera zen familia Oriotik, itzulera eguna zehaztu gabe. Familiari eta lagunei bidaia abiatzeko hilabete gutxi falta zirenean abisatu bazieten ere, zazpi urte pasatu zituzten bidaiarako dirua aurrezten. "Lagun min batzuek bazuten gure asmoaren berri, baina ezustean harrapatu genituen lagun gehienak eta familia". Izan ere, Larrañagak aspaldidanik zuen egunerokoan parentesi bat ireki, eta denboraldi batez bidaiatzeko gogo. Lehenengo semeaz haurdun zegoenean komentatu zion bere nahia bikotekideari, eta hark pixka bat pentsatu ondoren, bera ere prest zegoela erantzun zion. "Orduan hasi ginen dirua aurrezten, baina ideia argirik gabe. Hasieran, ez genekien nora joan, ezta nola



bidaiatuko genuen ere. Aukera desberdinak genituen: motxila hartuta, autokarabanarekin....", gogoratu du Illarramendik.

Urte horietan guztietan buruan zebilkiten ideia, baina izurriteak bultzatu zituen erabakia hartzera. "Lehen urteetan haurrak oraindik txikiegiak zirela iruditzen zitzaigun, baina izurriteak mundua geratu egin zuen, eta guri zer pentsatua eman zigun. Etxean horrenbeste egun pasatu ondoren, jende guztiari sortu zitzaion gauzak egiteko grina, eta guk erabaki genuen mugak irekitzen zituztenean bidaia abiatuko genuela". Autokarabanarekin bidaiatzea erabaki zuten, "haurrak txikiak zirenez, gauero ostatua bilatzen jardun behar ez izateko". Eta horretarako egokiena Hego Amerika izango zela pentsatu zuten.

Behin helmuga eta garraiobidea aukeratuta, Hego Amerikarako bidetara ekin aurretik hainbat gai itxita utzi zituzten etxean, lan kontuak argituta, eta beren etxebizitza alokairuan jarrita. "Hasiera batean, ez ginen ibilbide jakin bat zehaztuta etorri. Autokarabanak Ameriketara ekartzeko portu jakin batzuk daude Mexikon, Kanadan eta Uruguain, esaterako. Beste bidaiariek izan zuten esperientzia oinarrituta, eta hasieran behintzat hizkuntza oztopo izan ez zedin, Montevideoko portua aukeratu genuen horretarako".

Ezagutu nahi zituzten lekuak pentsatuta bazituzten ere, ibilbidea bidean zehar erabakitzen joan direla aitortu dute. "Hasieran gure asmoa zen Montevideotik Argentinara jaistea, baina une horretan negua zetorren hego hemisferiora, eta Patagonia ezagutzeko garairik aproposena ez zela ohartu ginen". Hotza eta elurra izaten dira

**ILLARRAMENDIREN ETA
LARRAÑAGAREN
HELBURUA BETI IZAN
DA "ESPERIENTZIA
BIZITZEA"**

**"NATUR INGURUNE
IKUSGARRIAK IKUSTEKO
ETA JENDEAREKIN
HARTU-EMANA IZATEKO
AUKERA ESKAINTZEN
DU"**



neguan Patagonian, eta egun osoa karabana barruan pasatzeko, Argentina iparraldean kokatuta dauden Iguazuko ur-jauziara joatea eta handik Brasilerara igarotzea erabaki zuten. "Herrialde horretan ere negua zen, baina 25 gradu inguruko tenperatura egiten du egunez, eta 18ra jaisten da gauean, karabanan bidaiatzeko eta bizitzeko aproposa". Bi hilabete eta erdi pasa zituzten bertan, Perito Moreno glaziarra ikustera Patagonia aldera abiatu ziren arte. "Ideia jakin bat izan arren, bidaiari zehar planak aldatzen joaten dira. Hasiera batean, esaterako, Brasil ez zen gure asmoetan sartzen, baina oso gustura egon ginen bertan. Esan dezakegu udako oporraldi moduko bat pasatu genuela Brasilen, herrialdeak eskaintzen dituen hondartzez gozatuz".

Esperientzia biziz

Illarramendiren eta Larrañagaren helburua beti izan da "esperientzia bizitzea", eta bideak berak "ezustekoak" ematen dituela ohartu dira, "natur ingurune ikusgarriak ikusteko eta jendearekin hartu-eman" izateko aukera eskaintzen baitu etengabe. "Gure ustez, horrek ematen dio zentzua bidaiari. Jende berria ezagutzeak eta haiekin uneak partekatzeak. Batzuetan bidaiariak izaten dira eta, beste batzuetan, berriz, bertako jendea. Naturaltasunez sortzen diren harremanak dira. Atzerritar gutxi ibiltzen den eremuetan, Perun, Bolivian edo Kolonbiako inguru batzuetan, atentzioa ematen du autokarabanan bidaiatzen ari den familia batek, eta jende asko gerturatzen zaigu galderak egitera. Bidean ezagutzen diren pertsona horiekin bizitako uneak geratzen dira grabatuta, oso aberasgarria da".

Eremu turistikoetan, berriz, autokarabanan bidaiatzen ari denari "zailtasun gehiago" jartzen diotela ere sentitu dute, "aparkatzeko zailtasunak-eta jarritz". "Saiatzen gara horietara ez joaten autokarabanarekin, guretzat ere ez baita erosoa", azaldu du Larrañagak.

Argi dute leku bakoitzak bere xarma izaten duela. "Argentinan paisaia ikusgarriak eta bertako fauna ezagutzeko aukera izan



genuen, eta Brasilen, berriz, hondartzez eta giroaz gozatu genuen. Dena dela, konturatu gara unerik berezienak naturarekin konexio zuzenean egon garenetan bizi izan ditugula: nonbaiten bakar-bakarrik egon garenean; goizean jaiki, autokarabana ireki, eta aurrean itsaso zabala topatu dugunean, edo basoan erreka baten ondoan egon garenean. Uyuniko gatzeko desertuan gaua pasatzea ere izugarria izan zen; ez da ezer entzuten, inguru guztian zehar ez baitago ezer", deskribatu du Illarramendik.

Ezustekoak bidean

Hainbat anekdota eta pasarte bizitzen ari da familia Hego Amerikan, eta batzuk "betirako" gogoan izango dituztela aitortu dute. Abenduaren 24a, esaterako, Copacabanan (Bolivian) pasatu zuten, 3.800 metroko altueran dagoen Titicaca lakuan. "Inguru horretan denbora asko pasatu genuen. Izan ere, Perura igaro nahi genuen, baina gatazka politikoa dela-eta erreboltak zeuden, eta errepideetan piketeak jartzen zituztenez, Bolivian egon ginen giroa lasaitu bitartean. Gabonetan, ordea, su-etena izango zela iragarri zuten urtarilaren 4ra bitartean, eta erabaki genuen abenduaren 25ean Perura igarotzea. Bagenekien astebeite izango genuela herrialdea zeharkatzeko; Machupichu ezagutu nahi genuen, baina, azkenean, ezinezkoa izan zen. Muga pasatu genuen, baina lehenengo herria zeharkatutakoan, errepidea moztuta aurkitu genuen. Buelta eman eta jatetxe batetik ateratzen ari zen bertako familia bat ezagutu genuen. Hizketan hasi ginen, eta autokarabana ikusi nahi zuten galdetu genien; barrura sartu ziren eta ardo bat eskaini nien", azaldu du Illarramendik. Azkenean, Eguberri Eguna beraiekin bukatu zuten; "bere etxe azpira eraman genuen karabana eta han egin genuen lo. Euskal Herrian pentsaezinak diren gauzak galdetu zizkiguten naturaltasunez. Hurrengo egunean beren ama ezagutzera eraman gintuzten, oso emakume berezia, benetan, eta zopa bat prestatu zigun. Une horiek gogoratzen dira; bidaian gauzak ez dira ateratzen uste bezala, baina beste ezusteko batzuk hartzen dira. Polita da".

Familia Brasilgo hondartza batean.

Haurrak Peruko Huacachinako Oasian.

Alai eta Oihan bidaian ezagututako familia batekin.

Akuadorgo azoka bat.

Alai eta Oihan bidaian egindako langun batzuekin.

Helduentzat ez ezik, etxeko txikientzat ere "oso esperientzia aberasgarria" izaten ari dela uste dute Larrañagak eta Illarramendik. "Hala ere, uste dugu adinak eragina duela bidaia bizitzeko moduan. Alaik 8 urte ditu, eta norabait iristen garenean gehiago baloratzen du ikusten duena; Oihanek, berriz, azaroan 5 urte egin zituen, eta askotan zerbait ikusi eta segituan joan egin nahi izaten du; gainera, antzematen dugu herrimin gehiago duela eta etxera bueltatzeko gogoia ere izaten du, batez ere, denbora luzez beste haurrekin egon ez denean". Gainera, bikoteak uste du bidaiak haurrei balio izan diela askatzeko eta beste umeekin erlazionatzeko. "Hasieran, ume talde bat ikusten zutenean, ez ziren gerturatzen lotsa ematen zielako, baina orain zuzenean joaten dira haurrak dauden tokira, eta segituan egiten dituzte lagunak. Badakite jolastu nahi badute beraiek gerturatu behar dutela".

Hausnartuz

Hamar hilabetez autokarabanan oso gauza gutxiarekin bidaiatzen aritu ondoren, etxeko bizimoduaz hausnartzeko tartea ere izan dute. Illarramendik uste du bi alderdi daudela. "Alde batetik, konturatzen gara Orion egunerokoan zeinen azkar bizi garen, lanean eta errutinan murgilduta. Bestetik, ordea, ohartu gara Euskal Herrian bizi kalitate oso ona dugula. Hego Amerikan Euskal Herrian baino 40 urte atzerago daude aspektu askotan, eta gabezia handiak dituzte". Horrez gain, gutxiarekin bizitzen ere ikasi dutela aitortu dute. Larrañaga barrez mintzatu da: "Unairi esaten diot Oriora bueltatzen garenean gauza erdiak ez ditudala berriz etxean jarriko. Etxea alokairuan jarri genuen etorri ginenean, eta gure gauzak ganbaran jasota utzi genituen, baina uste dut hantxe geratuko direla. Arropa piloa, sukaldeko traste guztiak... Hemen zartagin eta ontzi banarekin moldatzen gara".

Orain Kolonbian dago familia, eta Panama eta Costa Rica ezagutzea da euren asmoa, baina bidaiatzeko modua aldatu egin nahi dutela erabaki dute. "Sare sozialetan bidaia liluragarria dela dirudi, baina une gogorrek ere baditu. Kontuan hartu behar da etxean nork bere egunerokoa dugula, gure espazioa, eta hemen, berriz, egunean 24 orduz elkarrekin bizi garela laurok oso espazio txikian. Horrek nekatu egiten du. Gainera, autokarabana ere arazoak ematen ari zaigu, eta diru asko ari gara gastatzen konponketetan. Horregatik, erabaki dugu aurrerantzean leku gutxiago bisitatzea, baina horietako bakoitzean denbora gehiago pasatzea; horietan bizimodua egitea, alegia".

Ez dute itzulera datarik jarrita, faktore zehatz batzuek erabakiko dute hori: "Gure animoak, haurrek eta alderdi ekonomikoak esango du noiz itzuli. Zazpi urte pasatu genituen bidaiarako aurrezten, baina orain lanean ari ez garenez, zakua husten ari da, eta faktore ekonomikoak baldintzatzen du bidaia". Dena dela, badakite oso pertsona gutxi bizitzen duten abenturan murgilduta daudela, eta "momentua aprobeztatu" nahi dute. "Familia eta lagunak faltan sumatzen ditugu, ea noiz etortzen zaizkigun bisitan. Baita herrian lagun artean poteo eder bat egitea ere, hemen ez baitago etxean bezalako tabernarik. Hala ere, bidaiaz gozatzen jarraituko dugu oraingoz, etxera bueltatzean ez baitugu izango atzera bueltarik". ■■■■

LEHIAKETA

NIN DAGO? KARKARA?

Aurkitu Karkara pertsonaia aldizkarian.

Erantzuna **karkara@karkara.eus** helbidera
apirilaren 21a baino lehen.

Saria: Bi lagunentzako Berazadi Berrin bazkaria.

Karkarako Komunikazio Taldean **bazkide** izatea da baldintza bakarra.



9. orrialdean
zegoen ezkutatuta.

Jaione Arrillaga Macazaga
bazkidea izan da irabazlea.

Hemengo haragia.
Etxeko produktak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...

**HARTEGIA
PATXI
OLIDEN
URDATEGIA**

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10

**SU
KIA**
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29

Portu
Erreteta - Jantzeria

Kazolitat, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g - AIA
943-89 44 34

Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16
Orio

943 89 92 43
kaixo@zaragueta.eus

BODEGON
Sarasua

info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05

Sagasti
LEIHOAK
Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orrio

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti

**ZINKU
ERAIKUNTZAK**

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

**ZARAUZKO BEILATOKI-ERRAUSKAILUAK BAKARRIK
ESKAITZEN DIZU ZERBITZU INTEGRALA**

- Beilatokia eta errausketa-labea instalazio berean
- Areto intimo eta argitsuak
- Eraikin berria, modernoa eta eraginkorra
- Profesional berberak

Betiko zerbitzu bikaina espazio berri batean.
943 894 937 / 943 422 129 (24h) | memora.es
Abendaño Kalea, 2 - Zarautz

m | **memora**
Zarautz
Hileta
Zerbitzuak

Asmatu ipuin bat



ELIXABETE HUEGUN

Interneteko aplikazio bati ipuin bat kontatzeko eskatu nion behin. Esan nion "asmatu ipuin bat" eta asmatu egin zidan. Honela zioen, gutxi gorabehera:

Bihotz handia zuen Asmatu(k). Egun batean, bere etxe barnean ari zen aire freskoa hartzen, (...) hala ere, aire zikin bat sartu zen ere. Berak ez zuen jakin zein den haren sustraiak (...) eta hori dela eta, hainbat ideia asmatu zituen (...) baina oro har, ez zen ahaztu aire freskoa eta aire zikinarek arteko aldea bere etxean.

Asmatu bere etxean dago aire freskoa hartzen, konturatzen den arte aire zikina ere sartzen zaiola. Zergatia jakin nahi du baina ezin du. Azkenetarako ez dio axola, izan ere, etxe barruan aire zikinaren eta freskoaren arteko nahasketa betirako geratu baita.

Hasieran iruditu zitzaidan oso eskasa zela, pertsona baten istorioa kontatzen baitzuen eta pertsona horri Asmatu izena jarri baitzion. Ergatiboa ere oker erabiltzen zuen. Gero konturatu nintzen, ordea, zentzurik gabe lotutako hitz multzo bat baino, mezu ez oso ezkutua zekarrela ipuinak, egungo gizarteak pairatzen duen gaitz gordinenetak bati oinarria emanez: post-egiarena. Gaztelaraz *posverdad*, *post-truth* ingelesez. Alegia, emozioak eta iritziak (subjektibotasuna) egiari edo benetakotasunari gailentzea.

Egia hori aire freskoak errepresentatzen du eta, iritzia edo subjektibotasuna, aire zikinak. Gaur egungo gizartean iritziak, askotan, egiaren pare jartzen dira, ebidentzia ukatzera iristen gara, eta konturatzerako, ez-egiak egiaren lekua hartu du. Gaztelaraz esaten den modura, *miente, que algo queda*.

Ondo ezagutzen dugun gairen batean debate soziala sortzen denean segituan gara egiak eta ez-egiak desberdintzeko gai eta, askotan, aztoratu ere egingo gara sortu nahi izan den *fake news* horren tamainarekin. Inork ez luke bere borondatez aire zikinik hartuko, Asmatuk bezala, baina hala nahi izan gabe ere, gertatu egiten da; ebidentzia alboratuz, iritzieta eta emozioetan oinarritutako errealitate berri bat sortzea oso erraza delako gaur egungo gizartean, informazioaren eta sare sozialen gizartean. Ipuina Asmaturen bihotz ona seinalatuz hasten zen. Nik testua horrexekin berarekin amaituko dut. Azken finean, diferentzia horrek marka lezake: ze asmorekin jokatzeko dugun. ■

**"GAUR EGUNGO
GIZARTEAN IRITZIAK,
ASKOTAN, EGIAREN
PARE JARTZEN DIRA"**

IBER glass 

Automobilaren kristaleria

Errotulazioa

Hitzordua 689 34 11 01

edo LAIARANen



Estropalari, 12



LAIARAN

Lanerako arropak
5XL arteko tailak

PERTSONALIZAZIOA



ZILBOR-HESTE LUZEENAK

Kalean galdezka hasiz gero, herritarrak ohartuko lirateke dozenaka eta dozenaka guraso bizi direla eskualdean, seme-alabak jatorrizko herrialdean utzita. Familia transnazionalak dira horiek, eta sufrimendu eta errudun sentimendu sakona eragiten die egoerak guraso horiei –amak dira sarritan–. Seme-alabekin berriro elkartzea lortzen dutenean, gainera, zaila izaten da egokitzapena. Horretaz guztiaz mintzatu dira Nikaraguako eta Hondurasko ama bana, Guatemalako seme bat, Zarauzko Udaleko Immigrazio teknikaria eta sail horrek antolatzen duen talde terapiako psikologoa.

Testua: **Onintza Lete Arrieta**. Argazkiak: **Onintza Lete Arrieta eta utzitakoak**.



"Zilbor-hestea ugaztunen haurdunaldian enbrioio edo umekia karenarekin lotzen duen lokarria da. Bere barnean arteria eta zainak ditu, kareнатik umekira elikagaiak eta oxigenodun odol-eramateaz arduratzen direnak. Erditzearen ondoren, zilbor-hestea moztu egiten da". Hori zilbor-hestearen definizioa da, eta zilbor-hestea ebaki egiten bada ere, ez da mozten amaren eta umearen arteko lotura.

Familia ereduak gero eta anitzagoak dira mendebaldeko gizarteetan; eskoletara gerturatu besterik ez dago ikusteko zenbat motatakoak dauden: aitaz eta amaz osatutako ereduak dira nagusi oraindik, baina gurasoak bananduta dituzten familiak gero eta ugariagoak dira, baita guraso bakarrak eta bi amez edo bi aitez osatutako familiak ere. Askoz gutxiago diren arren, tantaka-tantaka, eskoletan bada beste familia mota bat: familia transnazionala. Horien ezaugarri nagusia da hainbat urtez umeak gurasoetako batengandik urrun bizi izan direla –amarengandik urrun, normalean–, eta gerora, berriz elkartu direla, jatorrizko herrialdea atzean utzita.

Eskualdean halako zenbat familia dauden jakitea ez da erraza, datu ofizialik ez dagoelako. Lor daitezkeen datu bakarrak dira



"Sentitzen dut ez naizela egon beren ondoan, baina ez zegoen beste aukerarik"

"Semeak deitu egiten zidan sukarra zuenean, eta biok egiten genuen negar"

Miryan Lopez (Azkoitia)

Errudun sentimendua

Miryan Lopez Bautista nikaraguarra da, eta 45 urte ditu. Azkoitian bizi da, eta Azpeitiko San Martin adinekoen egoitzan egiten du lan laguntzaile gisa. Duela bederatzi urte zeharkatu zuen Atlantikoa, 8 urteko alaba eta 12 urteko semea senarrarekin eta amonarekin utzita. Haren arabera, gogorra izan zen erabakia hartzea, eta gogorra egiten zaio oraindik orain gaiaz hitz egitea. Kafea eskuetan eta malkoak begietan mintzatu da momentu hunkigarrienetan. Errudun sentitzen da seme-alabengandik urrun egoteagatik. "Ama naiz, eta beraien ondoan ez naizela egon sentitzen dut, baina ez zegoen beste aukerarik. Izan ere, Nikaraguako gobernua aldatu zenean, agintari berriek beren pentsaera zuten herritarrei eman zizkieten lanpostuak, eta gu kalean gelditu ginen", azaldu du.

Bederatzi urtez, egunero-egunero hitz egin du seme-alabekin. Aurrena telefono dei bidez komunikatzen ziren, baina Whatsapp-a martxan denetik, bideo deiak egiten dituzte. "Hemen gauerdia denean ateratzen dira han eskolatik, eta beti deitu izan diet eguna zer moduz joan zaien jakiteko, baita etxeko lanekin laguntzeko ere. Han utzi banituen ere, gertu senti nazaten nahi dut", aitortu du. Baina ez da erraza hori lortzea: "Alabak 17 urte ditu, eta oraindik hara itzultzeko esaten dit, ez duela ezer materialik nahi, frijoleak janda biziko garela". Sufritu egiten du hori entzutean, eta semea txikiagoa zeneko oroitzapenak ekartzen dizkio gogora. "Semeak askotan izaten zituen sukarra eta konbultsioak. Halakoetan, deitu egiten zidan, eta biok egiten genuen negar", azaldu du. "Han bazituen aita eta amona, baina ama nahi zuen hark; normala da", gaineratu du.

Saiatu da distantzian normaltasuna mantentzen. Hala azaldu du: "Poemen errimak egiten lagundu izan diet, eskolako ariketak egiten ere bai... Argazkia atera eta bidaltzeko eskatzen nien, eta ikusi eta nire iritzia ematen nien bueltan. Guraso guztiok nahi izaten dugu onena seme-alabentzat. Nire gurasoek gogor

familia berriz elkartzeko egin diren eskaera kopuruari dagozkionak: Urola Kostan, iaz, 80 izan ziren berrelkarketa eskaerak. Berrelkartu aurretik, ordea, banandu beharra dago. Eta horri lotuta ere datu falta da nagusi. Zenbat pertsona, batez ere emakume, bizi dira Urola Kostan seme-alabak ja-torritzko herrialdean utzita? Ezin da jakin zenbateko zehatzta, baina ozenaka eta dozenaka dira, eta horietako biren testigantzak jaso ditu Gukak.

egin zuten lan nik ikasketak izan nitzan, eta nik ere hona etortzea erabaki nuen haiek unibertsitatera joan daitezzen". Semeak kontabilitate publiko-ko gradua amaitu berri du, eta diseinu grafikoko ikasketak egin nahi ditu orain. Alaba, berriz, odontologia ikasten hasi da. "Harro" dago zentzu horretan. Hiru urtean behin joaten da Nikaraguara bisitan; azken aldiz joan den abenduan izan zen han, seme-alaben graduazioen aitzakian. "Diru asko gastatu dut, baina ezin nuen galdu halako zerbait".

Lopezzen hasierako asmoa seme-alabak Euskal Herrira ekartzea zen, baina bete beharreko baldintzak ez dira batere errazak haren esanetan, eta hemen behar duten guztia ezingo liekeela eskaini konturatu dela aitortu du. "Eskatzen dizute espainiar nazionalitatea edukitzea, zure izenean etxea izatea [alokairuan edo erosita], kontu korrontean aurrezkiak edukitzea familia manten dezakezula erakusteko... Ezin ditut baldintza horiek bete. Aurten Nikaraguara betirako itzultzea pentsatzen nuen, baina ezinezkoa da. Hiru anai-arreba gara, eta ni bakarrik atera naiz Nikaraguatik kanpora lanera. Ondorioz, nik ordaindu behar izaten ditut gurasoen botikak, biak oso gaixo daudelako eta han ez dutelako ezertarako eskubiderik. Seme-alaben ikasketak eta hemen bizitzeak eragiten dituen gastuak ordainduta, ez zait aurrezteko aukerarik gelditzen".

Azkoitian ez da gaizki bizi, ordea. Hori ere azpimarratu du: "Gutxi batzuen partetik jasan dut arrazakeria, baina ni harro nago nire arrazaz eta jatorriaz. Gehien-gehienak herritar jatorrak dira, eta oso ondo hartu naute Azkoitian; batzuk, gainera, ikaragarri ondo portatu izan dira nirekin" –izen-abizenez aipatu ditu horiek–. Jauzitako malkoak xukatu eta esker oneko hitz horiekin amaitu nahi izan du tertulia Lopezek, irribarrea ezpainen eta begietan.

Muturreko egoeran ere tinko

Oso bestelakoa da Doris Sagrario Martinezen istorioa. Honduras-koa da, eta lau hilabete soilik daramatza Euskal Herrian. Zestoan bizi da, Malen Etxeak emakume migranteentzat duen harrera etxean. Ezer ez dutenentzat aterpetxea da, eta halaxe dago Martinez: ezer gabe. "Engainatu egin gintuzten laguna eta biok, eta ezer gabe gelditu ginen Parisko aireportuan. Geneukan diru guztia erabili genuen aurrena Bilbora eta gero Zestoara etortzeko,



"Gurasoak oso txiroak ziren eta ezin izan nuen ikasi. Seme-alabentzat etorkizun hobea nahi dut"

"Bideo deiak egitean Jaungoikoari eskatzen diot ez nadila negarrez hasi"

Doris Sagrario Martinez
(Zestoa)



"Guk orain daukagun bizimodua daukagu ama arriskatu eta ausartu egin zelako"

"Amarekin elkartu ondoren konturatu nintzen faltan bota izan nuela"

Estiven Benjamin Mexia
(Zarautz)

ezagun bat geneukalako hemen". Hala ere, zorteko sentitzen da, "Malen Etxekoen eskuzabalta-sunagatik". 46 urte ditu eta zortzi seme-alabaren ama da. Zaharrenak beren kabuz bizi dira, amona ere bada jada, baina lau seme-alaba gazteenengatik hartu zuen Europarako abioia; 20, 10 eta 5 urteko semeengatik eta 12 urteko alabagatik, hain zuzen ere. "Nire gurasoak oso txiroak ziren, eta nik ezin izan nuen ikasi. Seme-alabentzat etorkizun hobe nahi dut", azpimarratu du.

Elkarriketarako hitzordua jarritako egunean, lanetik atera berri da Getarian. "Adineko pertsona bat zaintzen ari naiz haren etxean *interna*, beste emakume bat ordezkatzan hamabost egunerako", kontatu du. Ez daki lanik izango duen ordezkapena bukatzean, baina bera "gogor lan egitera" etorri dela azpimarratu du, lane-rako irrikaz dagoela.

Lopezek bezala, Martinezek ere badu errudun sentimendua, baina negarrari ez dio biderik ematen. "Gogorra da herrialde honetan ezer eduki gabe eta ezer jakin gabe egotea. Bideo deiak egiten ditugunean, negarrez ez nadila hasi eskatzen diot Jainkoari, seme-alaben aurrean gogor mantendu behar dudalako. Eta, orain arte, hala egin dut; malkorik ez dut isuri. Beraiei beti bezala hitz egiten diet, beti bezala tratatzen ditut... Izan ere, seme-alabek banaketa gairatzea nahi dut", esan du. Hala jarraitu du: "5 urteko semeak esaten dit halako gauza eta beste halako gauza erosteko, eta nik baietz erantzuten diot. Itsasertzean jartzen naiz mugikorrarekin haiei itsasontziak erakusteko, eta semeak jolasteko itsasontzia erosteko eskatzen dit, uretan jarri eta ni nagoen tokiraino etorri nahi duelako. Gogorrarena egiten dut nik, barre egiten dut. Izan ere, ezin dut negar egin bere aurrean". 20 urteko semea utzi du beste hiruren kargu. "Harentzat ere gogorra da, egunez lan egiten duelako eta gauez ikasi, baina nire alaba zaharrago baten laguntza ere izaten du txikiak gaixotzen direnean eta. Gurasorik ez dut jada, eta hala moldatu behar dute, ez dago beste aukerarik".

Martinezek ustez, sufrimendua da umeak uztea, baina okerragoa da ezer ez egitea. "40 urtetik gorakoentzat ez dago lanik Hondurasen. Nik osasun arloko boluntario lanak egiten nituen, eta trukean, seme-alabentzat laguntzatxoak ematen zizkidaten. Baina zerbait gehiago behar nuen". Ez daki denborarekin seme-alabak Euskal Herrira ekarriko dituen ala Honduraserat itzuliko den. Galdera horri erantzuteko azkarregi deritzo. "Jaun-

goikoak esango dit zer den onena; ikusiko dugu".

Hondurastik atera aurretik, seme-alaba guztiei azaldu zien urrunera eta denbora luzerako lanera joateko aukera eman ziotela. Txikienak berarekin joango zela esan ziola oroitu du. "Gogorra egiten zitzaidan berak hori esatea. Azaldu nion, bera hobeto bizi zedin nentorrela lanera. Eguna iritsi zenean, baietz, joateko esan zidan, baina berari auto handi bat erosteko [barrez]. Eta horrela etorri ahal izan nuen". Seme-alaba

guztiek ez zuten modu berean erreakzionatu, ordea. "Min gehien alaba negarrez ikusteak eman zidan. Ez joateko esaten zidan, baita azken egunean ere. Eta nik negarrik ez egiteko esaten nion, banekiela-eta berarengana itzuliko nintzela. Gogorra da, baina zer egingo diogu, bada? Guztia haien hobebharrez da".



"Ideala litzateke lanketa emigratu aurretik hastera eta amatasun hori distantzian ere lantzea"

Amari errespetuz

Martinezzen eta Lopezen errudun sentimendu horrek talka egingen du Estiven Benjamin Mexiaren iritziarekin. Guatemalakoa da, 27 urte ditu, eta bederatzi urte daramatza Zarautzen bizitzen, amarekin eta anaiarekin berrelkartuta. Txikitatik ezagutu du ama herrialde batetik bestera bidaiatzen beraiei etorkizun hobearematzeko. "Amarekin eta amonarekin bizi nintzen txikitan, eta bata zein besteak hazi ninduten, amak lan egiten zuelako. Gogoan dut ama aurrena Mexikora joan zela lanera, eta amonarekin gelditu nintzela ni orduan; dena den, beti mantendu nuen harremana amarekin". 7-8 urte izango zituen orduan. Bi urterako joan zen ama Mexikora, eta Hondurasera itzultitakoan Mexiaren anaia jaio zen. Gero, Euskal Herrira etorri zen Mexiaren ama, Zarautzera, eta semea hiruzpalau urtera elkartu zen amarekin Euskal Herrian.

"Txikitan ez nuen alde handirik nabaritzen amaren eta amonaren artean; faltan sumatzen nuen ama, bai, baina tira. Beti egon izan naiz amonarekin, eta niretzat ama bezalakoa zen. Hala ere, Zarautzen amarekin elkartu nintzenean konturatu nintzen alde handia zegoela bata eta besteak ematen didanaren artean. Guatemalan nengoenean, ez nuen amarengana etortzeko kristoren beharrik sentitzen, baina Zarautzen hiru urte berarekin egin ondoren sentitu nuen benetan bera zela nire ama; hau da, amona eduki arren, ama faltan sumatzen nuela".

Mexiak azpimarratu duenez, amarekin elkartu eta berehala "konfiantza handia" sortu zen bien artean: "Betik gurekin egon

"Urteak egoten dira bananduta, eta berriaz elkartzean, arazoak sortzen dira"

Julen Aranguren (Zarauzko Immigrazio teknikaria)



"12-14 urtekoek gazteagoek baino zailtasun gehiago izaten dituzte egokitzeke "

"Okerrena da umeei azalpen garbirik eman gabe hartzea alde egiteko erabakia"

Jaume Galvany (Zarauzko talde terapiako arduraduna)

izan balitz bezala sentitzen nintzen". Errespetuz aritu da amaz hizketan, kazetariak anaia eta biak amonarekin utzi eta beste herrialde batera lanera joan izanagatik ama errudun sentitzen al den galdetu dionean: "Amak aipatu izan dit errudun sentitu dela, eta galdetu izan dit berearekiko gorrotorik ez al dudan sentitzen. Nik argi daukat guk orain daukagun bizimodua ama arriskatu egin zelako eta pausoa ematera ausartu zelako daukagula. Txikitan sekula ez nukeen pentsatuko orain horrela biziko

nintzenik. Ondoko herrialdera bidaiatzeko aukera izango nuenik ere ez zitzaidan pasatzen burutik, oso aukera gutxi dagoelako Guatemalan". Horregatik, amari eskerrak eman beharrean dagoela sentitzen du: "Niretzat eta nire anaiarentzat hoberako aldaketa handia izan da Zarautzera etortzea".

Talde terapia minaren aringarri

Zarauzko Udaleko Immigrazio teknikaria da Julen Aranguren, eta haren esanetan, azken urteetan Zarautzera iritsi diren etorri gehienek erreportaje honetako protagonisten profil berbera daukate: emakumeak dira, latinoamerikarrak, eta umeak jatorrizko herrialdean utzita etorri dira lanera, zaintza arloko lanetara, zehazki. Horregatik, teknikariak gertutik ezagutzen duen gaia da familia transnazionalena, batez ere familia horiek berriz elkartzeko prozesuari dagokionez. Laz, esaterako, familiak berrelkartzeko hamabi eskaera egin zituzten herrian, eta horietatik zortzi emakumeenak ziren. Halaber, sei eskaera emakume nikaraguarrek egindakoak izan ziren.

Gogorra izaten da umea eta ama banatzen diren unea, baita berriz elkartzeko diren unea ere, eta hori horrela izanik, Zarautzen urteak daramatzate guraso horientzat talde terapia saioak antolatzen. "Ideala litzateke lanketa guztia migratu aurretik hastea, eta amatasuna distantziara lantzeko pautak batzuk ematea emakume horiei; izan ere, urteak egoten dira egoera horretan, eta seme-alabekin berriz elkartzeko direnean, arazoak sortzen dira", azaldu du. Gehienetan, ordea, lanketa berandu hasten da, eta talde terapian berrelkartzeko prozesua hasita edo bukatuta duten gurasoek parte hartzen dute normalean. Faktore batzuek are gehiago zaildu dezakete familia horien elkarbizitza, eta faktore horietan garrantzitsuenak zerrendatu ditu Zarauzko talde terapia gidatzen duen Jaume Galvany psikologoak: "Batetik, kontuan hartu behar da gurasoek umeei zer azalpen ematen dizkieten



beren herria utzi behar dutenean; bestetik, kontuan izan behar da berrelkartzerakoan umeei elkartu nahi al duten, eta baiezko kasuan, nola eta noiz egin nahi duten galdetzen al zaien. Azkenik, adinak garrantzi handia dauka: 12-14 urteko umeei gazteagoek baino zailtasun askoz handiagoak izaten dituzte egokitzeapenerako. Izan ere, kostatu egiten zaie hemengo taldeetara egokitzea: hizkuntza berri batekin egiten dute topo, eta kulturalki komunean gauza asko eduki arren, beste gauza asko ez ditugu partekatzen. Gainera, pila bat kostatzen zaie eskola berrira eta ikasketa berrietara egokitzea".

Aranguren eta Galvany amek sentitzen duten minaz eta errudun sentimenduaz ere mintzatu dira. Gai hori asko lantzen dute talde terapietan, eta uste dute gurasoei on egiten diela beren egoera berean dauden beste gurasoekin horretaz hitz egiteak. Gurasoek ez ezik, umeei banaketa prozesua nola bizi duten ere aztertu behar da, ordea. "Umeen abandonu sententzioari lotuta, ikusi egin behar da jatorrizko herrialdean guraso horiek zenbat denboraz aritu diren ama edo aita paperean eta ume horiek nolako atxikimendua izan duten gurasoekiko. Okerrena da alde egiteko erabakia azalpenik eman gabe hartzea eta umea erreferente argirik gabe gelditzea sorterrian, eta askotan gertatzen da hori", azaldu du Galvanyk. Kontuak kontu, denborarekin, umeak, txikiak badira behintzat, erreferentziazko beste figura batengana lotzen eta haietara egokitzen direla azaldu du psikologoak: "Horregatik, umeei beti bi dolu izaten dituzte: bat, amak alde egiten dueneko, eta bigarrena, beraiek beren herrialdetik alde egiten duteneko. Ez dira egoera samurrak izaten". Dolu egoera horiek bizita, nola egiten dute aurrera, ordea? Normalean, arazo patologikorik ez badago, egokitu egiten direla esan du hark. Hori bai, argi dute talde terapiak onura asko dituztela, eta horregatik, aurten aurreneko aldiz, ahalik eta familia transnazional gehienengana iristeko, Zarauzko bost ikastetxeekin elkarlana abiatu du Zarauzko Udaleko Immigrazio Sailak. Helburua argia da: halabeharrez horrenbeste luzatutako zilbor hesteen orbain eta zauriak arintzen laguntzea. ■



"Musika nire bizitza da, ezingo nuke bizi hori gabe"

EÑAUT MARTI MUSIKARIA

Eñaut Marti oriotarra Txinan bizi da duela zazpi urtetik. Musikaren inguruan eraiki du bere bizimodua, afizioa ez ezik, ofizioa ere bai baita berarentzat. Egun, Shanghai Qiutian musika taldeko kidea da. Urtarrilean amaitu dute taldearen azken bira, baina berehala ekingo diote bira berriari, maiatzean.

Testua: **Mireia Galarza Bastida**. Argazkiak: **Eñaut Marti**.

Berriki egin duzue bira Asian eta European. Zer moduz joan da?

Egia esateko, nekatuta eta kilometro pila bat eginda gaude, baina oso ondo joan da. Furgonetan egin genuen bira, eta hori izan da aldaketa handiena. Gainontzean, zoragarri. Korean, Islandian, Euskal Herrian, Espainian, Frantzia, Ingalaterran, Suitzan, Austrian, Alemanian, Eslovakian eta Polonian izan gara, eta harrিতa geratu ginen leku horietan gure kontzertuak ikustera etorri zen jendetzarekin. Ingalaterran, adibidez, lau kontzertu eman genituen, eta horietatik hirutan sarrera guztiak amaitu ziren. Kontuan hartu behar da horietako batzuetan 400 pertsona inguru sartzen zirela. Hori ikusita, urrian berriro bueltatuko gara. Gainera, bertan jende asko ezagutu dugu, tartean, gure hurrengo diskoko argitaletxea.

Orioko sanikolasetan ere jo zenuten. Nolakoa izan zen berriz etxean aritzea?

Arraroa egiten zait, baina ez Orion bakarrik, Euskal Herri osoan gertatzen zait, baita Espainiako hainbat lekutan ere. Gogoratzen dut behin Madrilén joa gurela, eta sentsazioa neukan jendea denbora osoan niri begira zegoela; ezin

nuela ni izan. Txinan denbora asko daramat bizitzen, eta batzuetan sentipena daukat inguruko jendea orain dela zazpi urteko ni bat ikusten ari dela. Kostatu egiten zait etxetik hurbil ni neu izatea.

Txinan bizi zara egun, baina nolatan erabaki zenuen bertara joatea?

Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua ikasten ari nintzen Mondragon Unibertsitatean, eta ikasketa planean sartzen da Txinara bidaia, baina bi hilabeterako bakarrik. Txinan geundenean konturatu ginen gure proiektuak etorkizuna izan zezakeela bertan, eta han geratzea erabaki genuen. Horretarako unibertsitateko irakasleekin hitz egin behar izan genuen, eta haiek konbentzitu, esanez guk gure enpresa Txinan eraikitzea lortu gurela eta ondo zihoala. Azken finean, guk esaten genien: "Zertarako itzuli behar dugu gure enpresa hemen ondo badoa?". Ez zeukan logikarik itzultzeak. Amari ere deitu behar izan nion, momentuz ez nintzela etxera bueltatuko esateko, kar-kar. Zer diren gauzak, txantxa bat ematen du, baina azkenean, zazpi urte daramatzat Txinan bizitzen.





Eñaut Marti kontzertu batean. EÑAUT MARTI

**"SENTIPENA DAUKAT INGURUKO
JENDEA ORAIN DELA ZAZPI URTEKO
NI BAT IKUSTEN ARI DELA"**

**"PANDEMIAK BALIO IZAN DIGU
MUSICLAB PROIEKTUA BESTE MODU
BATERA KUDEATZEKO"**

**"EGUNEKO 24 ORDUAK
MUSIKAREKIN ZERIKUSIA DUTEN
GAUZAK EGITEN IGAROTZEN DITUT"**

MusicLAB proiektua da aipatzen duzuna, ezta?

Hori da. Hala ere, proiektuaren hastapenak aspaldi kokatu behar dira. Izan ere, guk bere garaian Gure Bazterrak jaialdia antolatzen genuen Orion, orain ere martxan dagoena, eta horren ondoren, musika kanpamenduak etorri ziren. Txinara etorri ginenean, ideia horri tiraka sortu zen MusicLAB. Berez tailer batzuk ziren, baina gero, dimentsio handiagoa hartu zuen proiektu bilakatu zen, eta eskuetatik ihes egin zigun azkenerako. Pentsa, pandemia etorri aurretik bost eskola eta berrogei langile baino gehiago geneuzkan.

Txinan neurri murriztaile asko hartu zituzten, eta luzaroan mantendu dira batzuk, orain dela gutxira arte. Zuei nola eragin dizue horrek?

COVID-19a iritsi aurretik nire musika taldean fokua jartzen hasi nintzen, eta pandemiak balio izan digu MusicLAB proiektua beste modu batera kudeatzeko. Beti izan naiz, gainera, oso pertsona positiboa, eta alderik onena ateratzen saiatu nintzen. Adibidez, online bidezko eskaintzan salto handia eman genuen, eta konturatu ginen negozioa berdin-berdin egin zitekeela horrela ere. Onartu behar dut ni oso pertsona erromantikoa naizela, eta gustuko nuela nire eskolak eta marka kaleetan ikustea, baina gastu handia suposatzen zuen alokairuak. Orain beste eskolentzako zerbitzuak ere eskaintzen ditugu, bertako irakasleei erakutsita. Horrela lortu duguna da eskola fisikorik ez izatea, baina proiektuak martxan jarraitzea. Egun, beste pertsona txinatar batek darama proiektua, eta ez nago eskolaren egunerokotasunean, baina hor jarraitzen dut, erabaki handiak-edo hartu behar direnerako. **Shanghai Qiutian taldean jarri dituzu indar guztiak, beraz. Zer da zuretzat musika?**

Egia esan behar badizut, musika nire bizitza da, ezingo nuke bizi hori gabe. Eguneke 24 orduak musikarekin zerikusia duten gauzak egiten igarotzen ditut. Taldeari dagokionez, nitaz gain, taldean Suitzako bat eta beste bi txinatar daude, eta nahasketa hori bereizgarria ere badela iruditzen zait. Azken finean, ez daude gure mailan musika egiten duten horrelako talde gehiegi. Gure kasuan, gainera, txineraz egiten dugu musika, %80 bai, behintzat. Disko berrian bi abesti daude ingelesez, baina normalean txineraz aritzen gara. **Bakarka ere ibiltzen zara musika sortzen. Zer bilatzen duzu proiektu horrekin?**

Taldearekin gertatzen zaidana da bertako kideek gelditu egin nahi izaten dutela bira egin eta gero,

eta nik jarraitu egin nahi izaten dut sortzen. Azken bira amaitu berritan taldeko bi kidek esan zidaten pixka bat bakean uzteko, eta harritu egin ninduen, baina gero ondorioztatu nuen hori pentsatzea ere normala dela. Kontuan hartu behar da jende berarekin denbora asko igarotzen dela horrelako bidaietan, eta normala da gero beraiek ez ikusi nahi izatea denbora batez. Niri, ordea, ez zait horrelakorik gertatzen, etxera iritsi eta hoge minutura hasten bainaiz hurrengo egunean nora joan gaitezkeen pentsatzen. Horren harira dator bakarkako diskoa, daukadan denbora libre gutxi hori aprobetxatzeko, baita taldekideak gehiegi ez nazkatzeko ere. Pentsatzen ari naiz bakarkako bira ere egitea, baina lehenengo taldearena dugu maiatzetik uztaileira, eta ikusiko da abuztuan bakarkakoa egin dezakedan. Azken finean, bakarkako proiektua askoz ere txikiagoa da, eta presio txikiagoa dut kontzertu sorta bat eskaintzeko. Lehentasun gehiago dauka taldeak. **Txina aipatu, eta kaosa da burura etortzen zaigun lehenengoetako hitza. Nolakoa da zure egun bat Txinan?**

Ederrari galdetu diozu! Nire bizimodua asko aldatu da azken bi urteetan, batez ere, nire musika taldeari lehentasun gehiago ematen hasi nintzenetik. Azken urte eta erdian behin bakarrik igaro ditut bi aste leku berean, pentsa. Momentu honetan, maiatzeko bira prestatzen nabil, 40 kontzertu baino gehiagokoa, eta aldi berean, taldearen bueltan sortu genuen New Era Record diskografikoari ere denbora asko eskaintzen ari naiz. Gure diskoez gain, bestelako taldeenak ere ateratzen ditugu bertan, eta horrek denbora eta lana eskatzen du. Birak eta promozioak ere gure esku daude, eta horrekin lana areagotzen da. Ez naiz geldirik egoten den horietakoa, nahiz eta azkenaldian hori egiten ere ikasten ari naizen.

Diote txinera oso zaila dela ikasteko. Erraza egin al zaizu zuri?

Oraindik hor nabil, maratoni bat bezala baita txinera ikastea, bizitza osorako zerbait. Azkena hiru hilabete pasatu nituen Txina hegoaldean egunero-egunero hizkuntza hori ikasten, eta hurrengo urtean ere segur aski berriro joango naiz beste leku batera helburu berarekin. Izan ere, hitzek, tonu desberdina erabilita, guztiz esanahi desberdina hartzen dute hizkuntza asiatiakoan, eta beraz, berriketako testuinguruan galtzen bazara, normalena da solasaldiaren haria galtzea. Gainera, niri gertatzen zaidana da besteek ni baino gehiago ulertzen ditudala neuk besteak.

Zer dauka zuretzat Txinak, bertan geratu nahi izateko?

Gauza pila aurki daitezke hemen, edozein zentzutan. Orain Hong Kong alboan nago, adibidez, eta hemen ia klima tropikala dugu, baina joan zaitezke Txina iparraldera, eta oraintxe bertan dena izotza dago. Desertu batean ere arazorik gabe egon zaitezke Txinako punta batean, eta hortik bi egunera, surf egiten aritu. Hori guztia Txina barruan. Benetan diot, Txina sekulakoa da. Kanpotarrak ere oso gutxi daude hemen, eta horietatik asko Asiakoak dira; beraz, itxura aldetik desberdintzen garenok oraindik eta gutxiago gara. Sentitzea uneoro txinatarrez inguratuta zaudela gauza aparta eta berezia da, baina hala ere, batzuetan nazkatu egiten zara desberdina izateaz.

Eta desberdina izanda, lortu duzu bertakoen artean integratzea?

Baietz esango nuke. Izan ere, nirekin lan egiten duten guztiak txinatarrek dira, baita nire musika entzuten dutenak eta nire lagunak ere. Hala eta guztiz ere, batzuetan joko kanpo sentitzen naizela esango nuke, beti kanpotarra izango naizen sentsazioa dudalako. Izan ere, esan bezala, Txinara immigratzen duen pertsona kopurua ez da beste leku batzuetan adinakoa. Desberdina izaten ere ikasten da, ordea.

Txinan bizimodua egin baduzu ere, zer botatzen duzu faltan Oriotik?

Geroz eta gehiago botatzen dut faltan Orio. Bertan izan nintzen azken aldian familiarekin egoteko aprobetxatu nuen, eta nire bigarren eta hirugarren ilobak ere ezagutu nituen. Lehen, adinagatik izango da agian, ez nuen hainbesteko herriminik sentitzen, baina egia esateko, geroz eta gehiago botatzen ditut faltan familiakoak. Maiatzean, gainera, segur aski aita eta ama etorriko dira ni bisitatzerako, eta horrek izugarriko ilusioa egiten dit.

2018an egindako elkarrizketa batean esan zenuen luzerako egongo zinela Txinan. Berdin pentsatzen jarraitzen duzu?

Bai, bueltatzeko asmorik ez dut, asko disfrutatzen ari naiz hemen. Egia da, ordea, gehiagotan joatea gustatuko litzaidakeela bisitan, edo gutxi joanez gero, denbora gehiagorako. Oraingo bizitza estiloak, gainera, ahalbidetzen dit hemen denboraldi batez nire gauzak egin eta gero familia bisitatzerako joatea. Hala ere, hemen ikusten dut neure burua, bai. Jende askok dioena gertatu zait niri ere: zenbat eta denbora gehiago egon leku batean, are zailagoa zait gero bertatik mugitzea. ■■■

Gu zabalago bat

IRUDIA: **GORKA LARRAÑAGA**

TESTUA: **ERREDAKZIOA**

Urola ibaiaren emaria, komunikazioaren eboluzioaren isla. Batak besteari esandako kontuak aurrena, paperean jasotako hitzak gerora.

Eta, pixkanaka, bagoaz itsaso digitalean barrena.

Papereko hedabide jaio ginen, eta euskarri digitaletan erein ditugu haziak.

Munduaren etengabeko aldaketaren aurrean, guk ere ezinbesteko dugu eraldaketa. Egungo komunikazioaren eta informazioaren ekosisteman bizirautea eta komunikazio talde gisa egitura sendo eta egonkor bat lortzea dugu jomuga; horretarako pausoa da GUKA.

Tokiko hedabideen konpromisoa eta egitekoa ez da aldatu, eta ez da aldatuko: herritarrak informatzen jarraituko dugu, bertatik eta gertutik, euskaraz, eta tokian tokiko komunitateari ahotsa emanez.

Denon hobe beharrez, badator eraldatzea, badator GUKA.

Gu zabalago baterako bidea. ■





Lehen urratsa eman zuten emakume aitzindariak



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

Joan den urteko udan, udalaren enkarguz, Udane Juaristi margolari azkoitiarrak murala pintatu zuen Orioko kanpineko kanpoaldean. Gure kultur ondareari balioa eman zion horrela, udalak adierazi zuenez. Osotasuna erakutsi nahi izan zuen: herria, moila, arrantza-ontziak, sare-jostunak, iraganezko gizonezkoen trainerua, oraingo emakumezkoena... Orioko lurra eta itsasoa batu zituen bere marrazkietan: baserritarrak eta arrantzaleak, iragana eta oraina... Eta gizonak eta emakumeak, berdintasunean.

Emakumeak leku duina hartzen du Udaneren muralean. Iraganean ez da beti horrela izan. Historiak ezkutatu egin ditu emakumeak. Giza historian, alor ia denetan, oso emakume gutxi agertu ohi da. Hainbat arrazoi daude hori nolabait azaltzen dutenak: batetik, emakumeak itxiak izan ditu gizarteko alor gehienetako atak; eta bestetik, historia idatzi, gizonezkoek idatzi dute. Pixkanaka joan dira emakumeak toki egiten etxetik kanpoko gizarteko jardueretan. Gutxi batzuk izan dira lepoa luzatu eta sasi guztien gainetik burua erakustea lortu dutenak.

Orion, XX. mendeko 70eko urteetara arte, neskak eta

mutilak aparte zihozten eskolara. Emakumeak itxia zuen bidea leku askotara: unibertsitatea, elkarte gastronomikoak, tabernak, elizako aldea, pulpituak eta korua (elizan koxka bat gora dauden leku guztiak), udal politika, kirolaren praktika... Arraun munduan, emakumea amandrea besterik ez zen, ospakizunerako apaingarri. Lan alorrean oso aukera gutxi zituzten, neskame izatetik aparte: sarea josten, eskabetxerian, jatetxean, enpresako bulegoan...

Anduko Kandida Arruti Ezeizaren amonak, Maria Josefa Lertxundi Artzuagak, hauxe erantzun omen zion don Sotero apaizak egindako galderari: "Nik zer nahi nukeen orain: 18 urte eta galtzak". Alegia, aukera izanez gero, mutila nahi zuela izan, barruan zeukan bertsolariak ate irekia izan zezan plazara.

Garai hartatik hona, ez batzuek nahi adina, baina gauzak asko aldatu dira hoberako. Gaur egun Orioko 13

**EMAKUMEAK ITXIAK
IZAN DITU GIZARTEKO
ALOR GEHIENETAKO
ATEAK, ETA HISTORIA
GIZONEK IDATZI DUTE**

udal ordezkarietatik 6 emakumeak dira; eta haiek aukeratu zuten alkatea ere bai: Anuska Esnal Oliden. Bai Aian eta bai Usurbilen emakumea dago alkate, hurbileko adibideak jartzeagatik. 1991tik badugu emakume mediku bat herrian: Goretti Aranburu Lazkano. Artikulu hau plazaratzen duen KARKARAn emakumezkoak dira kazetari guztiak: Aiora Larrañaga Solaberrieta, Andrea Zipitria Ibarrola eta Onintza Lete Arrieta. Eta elizan, emakumea entzuleen beheko bankuetatik aldarera igo da, ebanjelioa azaltzera; korura ere bai, kantatzera, erabat emakumez osatutako abesbatzan, zuzendari Josune Elorza Lekuberrieta dutela. Herriko eskoletako irakasle gehienak emakumeak dira... Garai bateko Orion berorikako tratua alkateari, medikuari eta apaizari zor zitzairen; gaur egun, lehenengo biak emakumeak dira. Adibideak besterik ez dira.

Lehenengo urratsa eman zutenak
Izan zen emakume bat kale bizitza handia izan zuena: Gregori Ibargoen Iparragirre. Emagin lanak egin zituen. Praktikante ibili zen. Kanposantuan medikuak hildakoari autopsia egin ondoren, gorpua josten zuen. Donostian herritarrentzako

enkarguak egin, arraunlarien errezipimendurako kaleak girlanda horiz jantzi, eta bertso zaharrak kantatzen zituen. Herritarrei jaiotzan, bizitzan eta heriotzan laguntzen zien. Bide berriak zabaldu zizkion emakumearen zereginari. Gregori *Akaña* esaten zioten.

Oraingo egoerara iristeko, Gregori bezala, bidean aitzindari izan ziren emakume batzuk. Neil Armstrong amerikarrak 1969an ilargira iritsi eta han lehen urratsa emandakoan, esan zuen pauso hura txikia zela beretzat, baina erraldoia gizateriarentzat. Emakume horiek nork bere eremuan emandakoaz ere antzeko zer bait esan liteke. Iazko martxoko KARKARAN (437.a), kirolean abiatu zirenen izenak eta kontuak ekarri genituen. Honakoan, hezkuntzan eta herri politikan nabarmendutakoak.

Andereñoak

Hezkuntzaren alorrean Maria Maistra dugu aitzindari. Maistra txiki hura haurrak euskaraz hezten aritu zen. "*Oriotar asko Maria Maistrarekin ikasiak gara dotrina eta lehen letrak*". Anjel Lertxundiren hitzak dira. "*Bertso txiki bat bota nahi nuke, / nongoa naizen esanaz, lamak esan dit oriyotarra / bihotz-bihotzez jaiotzaz, / hemen hazi naiz alai ta mardul / beti*



Erljioak elizatik kanpo ere presentzia handia zeukan garaiko prozesioa. Emakumeak 'Mariaren alabak' ziren orduan.



Sanpedroetan, Karitasen aldeko tonbola, plazan. Bost emakume boletok saltzen, eta Martzelo haurra besoetan duela.



Sotoan, emakume sare-jostunak, laneko atsedendian, pozik eta harro, beren lanarekin eta emakumetasunarekin.



Eskabetxerian lanean ziharduten emakumeak. Horixe zuten etxetik kanpo lan egiteko aukera bakarrenetakoa.



Dantzari txikiak, elizarako aldapan. Neskak eta mutil gazteak denak elkarrekin, dantza egiteko prest.

euskeraz eginaz, / horregatikan bizi guztian / mintzatu nahi det euskeraz". Horixe erakusten zien haurrei txiki-txikitatik Maria Camino Arregik: beren herria beren hizkuntzan maitatzen.

Gerra baino lehen izan zen Orioko eskolan maistra bat: *Señorita Rita* (Rita Gómez Mateo, Donostia, 1912-?). 1936an, herrian Francoren

tropak sartu baino egun gutxi lehenago, ihesi joan zen Bizkaia aldera. Eta 1937ko maiatzean, Gernikako bonbardaketaren ondoren, Santurtzitik Ingalaterrara, itsasontziz, Euskal Herriko milaka haur eta beste 95 maistrarekin batera. *Junta local asesora-informativa de Orio* izeneko batzordeak dokumentu bat bidali zion *Comisión depuradora del*

Magisterio izenekoari: *Informes sobre la conducta de los maestros, 1936-1937*. Honela zioen, hitzez hitz: "*La Maestra Nacional* Dña. Rita Gomez, de izquierdas, sentia simpatias hacia la escuela laica. Pertenece a familia que no era del frente Nacional. Se halla ausente". *Señorita Rita* Ingalaterran gelditu zen betiko.

Frankismoko urte ilunetan, Orion 1933an jaioetako Karmele Esnal Zulaika, umetan Maria Maistrarenean ibilia, eta 7 urterekin familiarekin Donostiara bizitzera joana, Magisteritza ikasketak eginda, 50eko urteetan Elbira Zipitriak sortutako ikastola klandestinoan andereño lanetan hasi zen. 1955ean bere ikastola jarri zuen martxan, eta erretiroa hartu arte jarraitu zuen. Karmeleren bidetara segida emanez, 1971n herritar batzuek Orioko ikastola sortu zuten. Sagrario Olaetxea lizartzarra eta Rosa Mari Agirre Genova oriotarra izan ziren lehenengo irakasleak.

Hezkuntzako hiru eredu desberdin, baina ezaugarri batek batzen zituen: bide berriak urratzeko ausardia. Maria Maistrak euskara maitatzen erakutsi zien haurrei; Ritak, laikotasuna ezarri zuen eskolan; eta Karmelek, eta Sagrariok eta Rosak, ikastolen sorreran eragin zuten.

Gerrak nabarmendu zituenak

Josepa Tolosa Arrastua, Felipa Urdangarin Goikoetxea eta Eleuteria Salsamendi Bengoetxea. Hiru emakume, 1936ko gerran adore handia erakutsi zutenak. Joseparen kasuan, soldadu frankistak etxera etorri, senarra Martzelino hartu eta Xuai gainera eraman zuten. Josepa sei seme-alaba txikiak etxean utzita abiatu zen, senarraren bila. Gizona bere hilobia izango zen zuloa egiten ari zen. Bizia salbatu zion.

Falangistek zigor krudela jarri zieten herriko hiru emakumeri: ilea arras moztuta, kalean gora eta beheara ibili zituzten, herritarren aurrean, familia abertzalekoak izateagatik. Baina Felipa *Ataunen* kasuan, ez zuten lortu hura lotsatzerik ez ezeren damurik agertzerik ere. Gerra bukatu eta urte askotara ere, San Migel egunean (irailak 29), 1936an egin ziotena ospatzen segitzen zuen Felipak, lan egiten zuen eskabetxeriako emakume lankideekin. Berak ondo zekien zergatik zigortu zuten eta hari eutsi zion bizitza osoan.

Eleuterik, haurra zela, ihes egin behar izan zuen heritik familiarekin Frantziara. Han gelditu ziren bizitzen betiko. Baina beti etorri izan da udan Oriora, eta hemen ez zuen onik izan harik eta orain dela urte batzuk bere familiak bizi izan zuen odisea, berak kontatuta, idatzita ikusi zuen arte.



Rosa Mari Agirre andereñoa bere ikasleekin, ikastola sortu berrian, elizako saloian.

Herriko lehen emakume hautetsiak

Franco 1975ean hil eta lau urtera izan ziren lehenengo udal hauteskundeak, 1979ko apirilean. 11 udal ordezkari hautatu zituzten herritarrek, botoaren bidez. Orduan sartu zen emakumea, historian lehen aldiz, Orioko udal politikan. Lau alderdi politikok lortu zuten ordezkaritza. Haietako batek, EAJk, emakume bat aurkeztu zuen 11 hautagaietatik: Asun Goñi Igoa; eta HBk eta EEK, bina: HBk, Inaxita Abaurrea Lazkano eta Marisol Dorronsoro Illarregi; eta EEK, Lourdes Indo Larrañaga eta Juanita Segurola Bastida. Lau alderdien zerrendetako 44 hautagaietatik 5 ziren emakumeak. Eta hautatu ziren hamaika zinegotzietatik, bakar bat: Inaxita.

Handik lau urtera izan ziren bigarren udal hauteskundeetan (1983) herritarren botoek bi emakumeri eman zieten aukera zinegotzi izateko: EAJko Mertxe Arruabarrena Izagirrerri eta HBko Ana Belen Murua Dorronsorori. XXI.

mendera arte ez zen iritsi emakumea herriko alkate izatera: 2001ean lortu zuen hori Mirari Arruabarrena Elizalde.

1989an KARKARA aldizkaria martxan jarri zenean, proiektuan sinetsi eta musu trukeko lanean abiatu zirenek ez zeukaten lantegi erraza: euskara hutseko aldizkaria aurrera ateratzea. Lortu zuten eta, 34 urte geroago, KARKARA baliatzen ari gara, orduan zeregin zail horretan abiatu ziren sei emakume hauek gogora ekartzeko: Ana Gonzalez de Txabarri Exposito, Miren Etxeberria Guridi, Marisa Arruabarrena Elizalde, Ana Mari Iturain Azpiroz eta Eli eta Nere Manterola Arostegi.

Aurtengo maiatzeko udal hauteskundeen emaitzaren berri KARKARAN emango diguten kazetariak emakumeak izango dira. Haiek esango digute nor izango den alkate hurrengo lau urteotan; eta gauza bat segurua da: emakumea izango da alkatea, zerrendaburuak emakumeak baitira. ■

"Kirol batzuetan handia da emakumeen eta gizonen arteko arrakala"

AINHOA USANDIZAGA KIROLARIA

Kirola betidanik gustatu izan zaio Ainhoa Usandizagari, urte batzuez geldialdi bat egin bazuen ere. Orain arte, korrika ibili da jo eta su, baina aurten, erronka berri bat hartu du beregain: Zarauzko Jira-Bira txirrindulari klubak emakumeen taldea sortu du, eta "oraindik erritmoa hartu gabe" badu ere, "udako lasterketarako prest" egotea aurreikusten du aiarrak.

Testua eta argazkiak: **Andrea Zipitria.**

Mendian zein asfaltoan. Bi modalitate horietako korrika saioetan parte hartzen du Ainhoa Usandizagak. Ez da horretara bakarrik mugatzen, ordea, duatloiak eta mendi bizikleta lasterketak ere aski ongi ezagutzen baititu aiarrak. Dena den, orain arte, korrikan zentratu izan da, batik bat, baina kirolak sortzen duen anbizio puntu horrek beste esparru batzuk probatzera eraman du. Hain zuzen, txirrindularitzan gehiago sakondu nahi du. Helburu horrekin, txirrindularitzarako prestaketa lanak egingo ditu, eta bere asmoa hainbat lasterketatan lehiatzen hastea da, duela gutxi Zarauzko Jira-Bira klubak sortu duen emakumeen Eulen-Nuuk taldearen izenean. Emakumezkoen txirrindularitzari bultzada ematea da talde horren helburu nagusia. Momentuz, beste lau emakumerekin batera ibiliko da maldak igotzen eta lehiatzen, baina azaldu du emakume oro ongietorria izango dela.

Korrika egitetik txirrindularitzan federatzera. Nolatan eman duzu pausoa?

Egia esan, ez neukan aurreikusita, baina banuen arantzatzko bat txirrindularitzarekin. Txikitatik etxean ikusi dudan zerbait izan da. Izan ere, aitak eta osabak bizikleta denda bat izan zuten Villabonan. Askotan joaten nintzen bertara. Gainera, gaztetatik saskibaloian hasi nintzen, baina libre antzera izaten nintzen asteburuetan aita eta biok bizikleta hartu eta buelta bat ematera ateratzen ginen; gehienetan, ordea, mendira. Ondoren, koxkortu nintzenean, kirola alde batera utzi nuen, eta hainbat urtez ezer gutxi egin nuen. Geldialdi horretan ohartu nintzen kirolak nire bizitzaren parte izan behar zuela, asko laguntzen baitzidan aspektu askotan. Hori pentsatuta, Orioko atletismo taldean hasi nintzen eta, ondoren, duatloietan, mendi lasterketetan eta BTT modalitateko lasterketetan lehiatzera animatu nintzen, gaur arte. Modalitate horietan, noski, bizikletan ibiltzea tokatu zait, baina beti korrika egitean zentratu izan naiz. Joan den abenduan Zarauzko Jira-Bira kluba nirekin harremanetan jarri zen. Emakumeen Eulen-Nuuk taldea osatzeko nahia plazaratu zidaten. Aukera polita iruditu zitzaidan, eta baiezkoa emanda, hor gabilta hastapen prozesuan murgilduta.



Momentuz, bost emakumek eman dugu izena. Hala ere, gure asmoa taldea handitzen joatea da. Bide batez, txirrindularitza gustuko duten emakumeei dei egin nahiko nieke, ongi-etorriak izango baitira guztiak.

Hasiera bada ere, dagoeneko ari zara lasterketetan parte hartzen, ezta?

Bai, hala da. Pandemia ostean BTT edo mendiko bizikleta lasterketetan hasi nintzen parte hartzen. Orain, horri jarraipena emango diot eta nire asmoa, behintzat, uda aldera, errepideetako lasterketetan hastea da; oraindik errepideko erritmoak ez ditut hartu, ordu dezente sartu beharko ditut horretarako, baina horretan zentratuko naiz aurren.

Zeuk zer duzu gustukoago: mendia ala errepidea?

Nik, momentuz, nahiago dut mendia. Askotan jendaurrean presio puntu bat edukitzen dugu, eta alde horretatik, mendia erakargarriagoa egiten zait. Herriarok ditugu egunerokotasunean kezka, eta naturak badu gaitasun hori bizitzako gauzak beste modu lasaigo eta xamurragoan kudeatzen laguntzen duena. Mendiak autoezagutzarako ere balio duela esango nuke. Hemen inguruan, gainera, leku zoragarriak ditugu horretarako. Adibidez, Agorregiko burdinola ingurua.

Aurtengorako zer helburu jarri diozu zeure buruari?

Momentu honetan prozesuaz gozatu nahi dut. Emaiza onak noizbehinka gustura hartzen dira, ez dut gezurrik esango, baina momentu honetan nire begiak prozesuan daude. Maila aldetik, badakit tartea badudala hobetzeko; beraz, hori landu nahi nuke, eta maila polita ematera iritsi.

Eta, talde gisa, zer helburu du Eulen-Nuuk taldeak?

Emakumeen presentzia areagotzea. Urte askotan desoreka egon da, ez bakarrik txirrindularitzan, kirol askotan gertatu da. Desoreka hori gutxitzen joan da urteen poderioz, eta horren isla da emakumeen txirrindularitza talde hau. Dena den, oraindik bidea dugu egiteko, talde baten sorreraren hasiera besterik ez baita. Zentzu horretan, pertsona orok hausnartu beharko luke, gizon edo emakume rolaz harago, desoreka nola orekatu genezaken pentsatuz. Ondoren, eraginkorra izateko, hausnarketa hori praktikan jarri beharko litzateke, noski.

Orduan, zure ustez, gaur egungo gizartean oraindik estereotipoak daude kirolean?

Garai batean baino zertxobait gutxiago, baina oraindik presente daude, bai. Horiek guztiak desagertzeko gizarte bezala lana egin behar dugu.

Emakume izateagatik trabarik eduki al duzu txirrindularitzan?

Aurreko bi urteetan apustu sendoa egin da ikuspuntu horretatik Euskal Herrian. Hori garrantzitsua izan da, dirua jarri baita. Eta dirua jartzen den momentutik maila igo egiten da. Zergatik? Bada, emakumeek bete-betean horretara dedikatzeko aukera dutelako, eta ez erdizka, orain arte gertatu den bezala. Baina, diruak ere badu ikuspuntu negatiboa: merkantilizazioa. Erdiko zerbait behar dugu. Dirua beharrezkoa da soldata duin batzuk eduki ahal izateko, baina ez litzaidake gustatuko futbolarekin gertatu den desoreka hori gertatzea beste kirolean; ikuspegi neoliberal horren aurka nago.

Zein da, beraz, arazo nagusia?

Kirol profesionalari dagokionez, oraindik pauso batzuk ematea falta da. Hain zuzen, soldataren kontua oraindik hainbat lekutan kili-kolo dago. Bestalde, azpimarratu nahiko nuke kirola ez dela profesionalentzako bakarrik, eta halaber, ez dela norgehiagoketara bakarrik mugatu behar. Garrantzitsua da maila altuko kirolariak izatea, baina baita maila guztietako kirola egitea ere. Kirola, oro har, garapen pertsonal gisa hartu behar dugu; garrantzitsua da osasun ikuspegitik.

Beste zerbait gehitu nahiko zenuke aipatutako emakumeen eta gizonen arteko arrakalari dagokionez?

Kirol prestakuntza prozesuetan emakumea aintzat hartzea gustatuko litzaidake; hilerokoa, kasu. Hainbat kirolean ez da aintzat hartzen emakume bat noiz dagoen hilerokoarekin, eta beharrezkoa iruditzen zait. Izan ere, gorputza momentu horietan ez da berdinean egoten, eta baliteke egun horietan, adibidez, beste modu bateko entrenamenduak egin behar izatea, edo behintzat, esfortzuak txikiagoa izan behar duela iruditzen zait, errendimendua ez baita bera. Nire bizipenetik diot; gogoan dut Pagoetako Mendi Lasterketa batean, 16. kilometroan zehazki, hilekoa jaitsi zitzaidalako, eta horren ondorioz, errendimenduak behera egin zuen. Baina, tira, gorputz bakoitza mundu bat da, eta guztiei eragiten digu modu desberdinean hilerokoak; beraz, hori kontuan hartu beharko litzateke. Bide batez, aipatu, berdintasunaren aldetik, halako gaiak aztertzen dituen ikerketa zientifikoen falta nabaria dela gaur-gaurkoz. Horregatik, halako alorretan ibiltzen diren profesionalak animatu nahiko nituzke hilerokoa bezalako gaien inguruan sakontzera. ■■■



ORIOKO HERRI IKASTOLA

"Zuek zarete herriko euskalgintzaren erreleboa!"

JABIER ZABALETA EUSKARA TEKNIKARIA



LH5. mailan euskarak bizirik nola iraun duen erantzun nahian jardun gara aurreko proiektuan. Zein egoe-ratan ikusten duzu Orion euskara?

Esango nizuke toki gutxitan dagoela euskara Orion bezain indartsu, baina, aldi berean, Orion ere baditu zailtasunak irauteko; badugu zer hobetua eta zertan ekin.

Euskara batuari omenaldia egiteko giza katea osatu genuen martxoaren 24an. Beharrezkoak al dira horrela-ko ekintzak?

Bai, jakina! Orain dela 35 urte, Euskara teknikari hasi nintzenean, euskara batua errotu gabe zegoen gizartean; udaletxean ere gaztelaniaz egiten ziren idatzi guztiak garai hartan, euskaraz egiteko modu arauturik ez zegoelako eta gentozen garaitik gentozelako. Euskaltzaindiak euskara batua finkatzeko eta zabaltzeko egindako lana oso garrantzitsua izan zen eta, geroztik, miragarria izan da gehiengo handi baten babesarekin egin den bidea.

Euskara batuaren sorrerak zer eragin izan zuen Orion?

1989an *Karkara* aldizkaria sortu genuenean, esaterako, oso jende gutxi zen herrian euskaraz idazteko gai. Guk hasieratik erabaki genuen aldizkaria euskara batuan egitea, ikusten genuelako eredu hori zela zabaltzeko beharrekoa.

Jendea euskara batuan irakurtzen ohitu zen Orion, hein handi batean *Karkara*-ren eraginez.

Txillardegi omendu zen giza katean. Orion ezagutzen al duzu euskara batuaren alde borrokatu zuen norbait?

Euskara bultzatu duen jende asko egon da Orion: Maria Maestra, On Sotero apaiza, ikastola sortu zutenak, eskola euskaldundu zutenak, *Karkara* egin zutenak... eta hori, euskal kultura sortzen dabilzan guztiak aipatu gabe!

Zer eskatuko zenieke gu bezalako gazteei, euskarak bizirik iraun dezan?

Euskaraz egitea, zoazten lekura zoaztela, beti eta nonahi. Zuek zarete herriko euskalgintzaren erreleboa! ■

"KARKARA ALDIZKARIA SORTU GENUENEAN, OSO JENDE GUTXI ZEN HERRIAN EUSKARAZ IDAZTEKO GAI"



KLARA PUERTAS

Etorkizunari so

Ekainean, DBH utzi eta Zarautzera edo Donostiara joango gara gehienok. Batzuk gogotsu daude, beste batzuk prest... Baina, dena pentsamendu positiboak al dira? Ba, noski ezetz; gauza guztiek bezala, gauza onak eta txarrak dituelako. Batzuentzat guztiz ona da, eta beste batzuentzat, berriz, dena txarra. Egia esan, badaude beste batzuk bi sentimendu horien erdian daudenak, eta ni naiz horietako bat.

Gorabehera askoko garaia izateaz gain, erabaki asko hartu behar dira: zer ikasi, nora joan ikastera... eta ez da beti erraza izaten, gure etorkizunean eragingo duten erabakiak izango baitira. Lehenengo aldiz askoren bizitzan, gure herri txikia utzi eta mundu zabalera aterako gara. Ez da txantxetako kontua. Leku berriak ezagutzeko aukera izango dugu, lagun berriak egitekoa... Horrela esanda polita ematen du, baina, era berean, beldurgarria ere iruditzen zait. Kezka asko denbora gutxian. Baina, nahitaez joan behar da, eta ez dago besterik.

Horrez gain, notak. Askori notak jaisten zaizkie, eta hori nire kezka handienetako bat da, baina ikasi egin behar da, eta aurrera egin. Niri galdetzen badidazu, bai, ni beldurtuta nago, eta guztiz normala da. Uste dut denok gaudela horrela, batzuek ezetz esaten badute ere. ■




SUDOKUA

Bete hutsuneak HODEIA hitzak dituen letren bidez. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zer da?

Animalia eder honek aintzira eta ibai bazterrak ditu gogoko. Oso ongi daki igerian eta arrainak jaten ditu. Zoritxarrez halako gutxi ditugu Euskal Herrian. Ba al dakizu zer izen duen? Ez badakizu, eraman beheko hizkietako bakoitza dagokion lekura eta hortxe agertuko zaizu.




Margotu

Gure lagunak arrain bat ikusi du uretan eta hura harrapatzeri doa. Inguruan belarra eta sastraka dago eta euria ari du. Marraztu eta margotu eszena.



ALdea dago!

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. 14 dira guztira.



Handienetik txikienera





Zazpi loreok handienetik txikienera ordenatu behar ditugu. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienera 7.



DOMINOAN

Marraz itzazu falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Idatzi lauki banatan pertsonaia bakoitzaren esaldia



Zeeer??!!

Zer diote gure laguntxoek? Hasi bakoitzaren geizitxotik eta lotu hizkiak banan-banan, hariari jarraituz. Puntu urdinak hitzen arteko espazioak dira.

Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

DOAN EZ DA DEBALDE



ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.

bazkide@ukt.eus o 943-81 38 41